

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko irailaren 23a / 729. zenbakia

HIRIGINTZA / Kultura etxearen afera

Gobernu taldeak ia lau milioi euroko desbideratzea egin duela salatu du PSE-EEK

UBANE MADERA

Beste behin, berbagai ditugu kultura etxeko obrak. Oraingon, PSE-EEK salatu du gobernu taldeak irregulartasunak egin dituela, akaso legez kontrako ekimenak, eta erantzukizun politikoak eskatu ditu. Udalak, berriz, auditoria publikoa egingo dutela iragarri du.

Gobernu taldearen kontrako salaketa gogorrak egin zituen PSE-EEK eguazteneko prentsurrekoan. Kultura etxe berriaren obrakin lotuta egin dituzten ustezko irregulartasunak salatu zituen. Laburbilduz, Paco Gartzia salatu zuen kultura etxeko lanak hasi zituztenetik, bi bider aldatu dutela hasierako proiektua, eta horren ondorioz, obraren aurrekontua. Eta aldaketa horiek osoko bilkuraren onespenean barik egin dituztela, gaia ez dute eta udalbatzarrean landu ere egin.

PSE-EEKo bozeramaileak emandako datuen arabera, aldaketa horien ondorioz bikoiztu egin da kultura etxearen hasierako aurrekontua. 3.446.000 bat eurozen. Orain, berriz, ia 8.000.000 euroraino handitu da. Gauzak horrela, "ia lau milioi euroko desbideratzea egin dute".

Hala, diru desbideraketa hori larria izan arren, PSE-EEren ustez larriagoa da legeak esaten duenari jaramon egin barik aldaketa horien berri inori eman ez izana, ez osoko bilkurari ezta Hirigintza Sailari ere.



PSE-EEKo zinegotziek erantzukizunak eskatu zizkieten gobernu taldea osatzen duten EAJ, EA, EB eta Aralar alderdiei.

IKERKETA BATZORDEA

Gauzak horrela, irregulartasun horiek publikoki salatzeaz gainera, Barne Ikerketa Batzordea eratzeko eskatu zuen PSE-EEK, erantzukizunak eskatzeko. Eskatu zuten, baita ere, batzorde hori ez egotea alkatearen ezta Hirigintza buruaren menpe.

Horrekin batera, jakinarazi zuen PSE-EEren zerbitzu juridikoek lanean dihardutela gaia prebarrikazioarengatik epaitegietara eraman edo ez argitzeko.

ILUNTASUNA ETA ESLEIPEN ZUZENAK

Hori dela eta, PSE-EEK oraingo gobernu taldeak duen jokabide

Aurrekontuak dituztenean, udalbatzarrari aurkeztuko dizkiotela esan dute

iluna salatu zuen: "Lehenengo gobernu taldeak ere bazituen jokabide ilunak, baina oraingoa okerragoa da". Horren adibide moduan jakinarazi zuten zenbait obra lehia-keta publikoa egin barik esleitu izan dituztela, zuzenean; eta hori ez da legezkoa. "Azoka eta Mondragones kaleko lanak, esaterako, PPK salatu izan duen moduan".

KONTU AUZITEGIAREN SALAKETAK

Horren harira, PSE-EEK aditzera eman zuen Kontu Auzitegiak ere

behin baino gehiagotan salatu izan duela Udalaren jardun irregularra. Are gehiago, bestelako arteen, jakinarazi zuen Kontu Auzitegiak berak salatu izan duela kultura etxeko obrakin lotuta egin diren aldaketak, osoko bilkuraren onspenean barik egitearren.

ALKATETZAREN IDATZIA

Salaketa horien guztien aurrean, Udalak zera adierazi du: "Kultura etxeko lanak geldiarazi egin ditugu desadostasunak ditugulako enpresa eraikitzailearekin (...), Udala ikertzen dabilen handitze bi egiteko aurrekontua dela eta. Handitzeak honakoak dira: hasieran frantziskotarren komenturako izan behar zuten 700 metro koadro gehitzea kultura etxeari eta argizuloa egitea". Gaineratuta, koaren arabera, obraren etenaldia egin dute, "Udalak zaindu egin behar duela zergadun guztien diru publikoa modu arrazionalerik erabiltzen dela, desbideraketak kontrolatuz". Horren harira, jakinarazi du obraren exekuziorako arazoizko aurrekontuak dituen momentuan, osoko bilkuran aurkeztuko dituela, onetsiak izan daitezkeen. Are gehiago, gai horren gainera sor daitezkeen zalantzak argitzeko, kultura etxean erabilitako partida guztietan auditoria publikoa egingo duela iragarri du. Bukatzeko, PSE-EEren prebarrikazio salaketaren aurrean exijitu du adierazpen horiek erretiratzeko; eta hala egin ezean epaitegietara joko duela, PSE-EE gezurretan dabilelako.

BEDOÑABE HAURRESKOLA


(0-2 urte bitarteko umeendako)
matrikulazio epea zabalik!

Noizko: Azaroan eta urtarrilean sartzeko

Noiz: irailaren 20tik 30era

Non: Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan (Alfonso VIII kalea, San Andres auzoa)

Tel.: 943 79 76 86



INGURUMENA/ Mugikortasun Plana

Mugikortasun Plana herritarren eskura dago, alegaziorik duenak egin ditzan

UBANE MADERA

Arrasatek badu Mugikortasun Plana. Aho batez onartu zuen udalbatzarrak astelehenean. Hori bai, behin-behinerako onespina izan zen; orain, hilabetez jendaurrean izango da, alegaziorik balego haiek haiek hartzeko. Herritarren iritzia batzeko txanda da, beraz.

Motordun ibilgailuen joan-etorria, bizikletena eta oinezkoena arautuko du Mugikortasun Plana. Betiere, Arrasaterendako eta Arrasateko bizilagunendako bizi-kalitate hobea lortu nahian eta ingurumena gehiago babestu nahian, Zera landu dute: autoen zirkulazioa gutxitzeko plana; oinezkoendako ibilbideak; aparkaleku-plana; bizikleten erabilera bultzatzeko; tranbia eta garraio publikoa.

Bi urtean ibili da Kataluniako Intra enpresa plan hori egiten eta astelehenean aurkeztu zuen emaitza, zinegotzietan lehenengo, herritarrei, ondoren.

INKESTEN EMAITZAK, OINEZKOAK

Hasteko, herritarren inkesten emaitzak jakinarazi zituen Intra enpresako Ole Thorsonek. Oinezkoen arabera, Arrasaten zailtasunak daude espaloietan ibiltzeko, hiru arrazoi nagusirengatik: autoak espaloietan gaitzen aparkatuta daudelako; txakur-kakak daudelako, espaloia bera estuegia delako edo egoera txarrean dagoelako.



Ole Thorsonek esan zuen, besteak beste, joera dugula nork bere autoa erabiltzeko, eta garraio publikoa egokiago erabili behar dela.

Beste zenbaitek adierazi du herriko obrek oztopo egiten dutela, zenbait aldapa labainkorak direla, bizikletendako bideak falta direla eta zikinkeria dagoela.

INKESTEN EMAITZAK, GIDARIAK

Gidariei egindako inkesten emaitzek, berriz, zera erakusten dute:

erdiguneak autoen zirkulazio handia jasaten duela. Ole Thorsonen esanetan, "ibilgailuei kanpoko ibilbideak eskaintzeko lan egin beharra dago, erdigunera sar ez daitezten". Horren harira, adierazi zuen saihebidetako, esaterako, gaur egun ez duela lotura asko hiriko beste-lako errepideekin.

DIAGNOSIA: AUTOBUS URBANO GEHIAGO

Horrez gainera, herritarrek ikusten dituzten beharrak ere zehaztu zituen Intra enpresak. Ia %35ek uste dute autobus urbanoa indartu egin behar dela; besteak beste, ordutegi hobea eta maiztasun handiagoa eskatzen dute. %16k, berriz, uste dute herri barruko zirkula-

zioa hobeto egituratu behar dela: errei eta semaforo gehiago ipini, zebrabideak...; bestalde, aparkaleku gehiago eskatzen dute inkestatuen %14k; bidegorri gehiago %9k; oinezkoendako pasabideak %7k; San Andres auzoan zirkulazioa ordenatzea %4k.

PROPOSAMENAK ETA EKINTZAK

Hori guztia kontuan hartuta, zenbait proposamen egin dizkio Intra enpresak Udalari. Esaterako, alde zahararen izaera duen espazio zatia handitzea. Hau da, autoen joan-etorria mugatzea ez alde zaharrean bakarrik, baizik eta autoen erabilera mugatuta dagoen gune hori handitzea Garibai etorbideraino alde batetik eta Arrasate Pasealekuraino, bestetik.

Proposatzen dute, baita ere, garraio publikoa zailtasunak dituzten pertsonendako egokitzera; urbanoaren maiztasuna handitzea eta egokia ikusten dute tranbia ipintzea. Are gehiago, tranbia ipini artean, proposatzen dute urbanoaren hirugarren linea bat ipintzea, tranbiaren ibilbide bera egiteko. Modu horretan, herritarrek ohitzen joango lirake zerbitzu publikoa erabiltzen.

Hori guztia eta proposatutako bestelakoak egiteko, 2012ra arteko egitasmoa proposatu du Intra. Herritarren-eta alegazioak aztertu eta gero, Udalak Mugikortasun Plana behin betiko onartzen badu, hitzartutakoa egiten dutela zaintzeko jarraipen batzorde bat eratu du dutela ere jakinarazi zuten.

Proposamen garrantzitsuenak

Garraio publikoa: urbanoak egokitzea zailtasunak dituzten erabiltzaileendako; tranbia ezartzea.

Hirigintzako gutxieneko azpiegiturak: Hirigintza konpaktua egitea, erabilerraza; hainbat garraibidealdi berean ibiltzeko aukera duten kaleak egokitzea;

Errepide sarearen erabilera: kaleen hierarkiazioa, errepideen erabilerraren arabera; Irisgarritasun Udal Plana egitea; oinezkoendako sarea handitzea eta kalitate aldetik hobetzea

(eskailera mekanikoak ipintzea). Eta saihebidetako lotura handiagoa izatea herri barruko errepideekin.

Aparkalekuak: galtzadatik kanpora aparkatzea bultzatzen duten neurri fiskalak hartzea; motorrendako eta taxiendako aparkalekuak sortzea eta zailtasunak dituztenendako erreserbatzea; kalitatezko galtzadatik kanpora aparkalekuak sortzea.

Bizikletaren erabilera bultzatzea: besteak beste, bidegorriak egitea.

Aldatu beharrekoak

Barruko desplazamenduak: %55etik %45era gutxitu behar.

Espaloietako kopurua: %38tik %42ra handitu behar.

Oinezkoendako guneak: %14tik %21era handitu.

Garraio publikoa: %6tik %20ra handitu.

Garraio publikoaren maiztasuna: 60 minututik 15 minutura jaitsi behar.

Aparkaleku kopurua (pribatuak): %34tik %39ra.

CO2 eta bestelako emisioak: 1,2 kg/biztanleko kopurutik, 1 kg/biztanleko kopurura jaitsi behar.

Partikulen emisioa: 3,6tik 3,1era jaitsi behar.

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 79 78 14
ARRASATE



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebendun hizkiak

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

'Pobrezia Zero' egitasmoa bultzatu guran dabilta Arrasaten

U.M.

Munduan dagoen pobrezia eta gizakien arteko desberdintasunak salatu gura dituzte **Pobrezia Zero** kanpainaren bitartez. Bestelakoan artean, **pobrezace-ro.org** webgunean atxikimendua eskatzen dute, boterea duten pertsona eta erakundeei presioa egiteko, bidezkoak ez diren egoerak alda ditzaten.

Horren harira, nabarmendu gura dute atxikimendua ematea "nahitaezkoa dela kanpainaren arrakastarako, sentsibilizatorako". Hala, webguneaz gainera, telefonoz ere eman daiteke atxikimendua (943 77 17 38) edo posta arruntaren bitartez (Bañez Doktorea 1, 20500 Arrasate).

Atxikimendu bilketaz gainera, irailetik aurrera ekimen gehiago egingo dituztela ere iragarri dute. Besteak beste, etxez etxe eskuorri bat banatuko dute oraingo hilean, herritarrei **Pobrezia Zero** kanpainaren gaineko informazioa helarazteko.

HELBURU NAGUSIAK

Pobrezia Zero, berez, nazioarteko kanpaina da. Orain, Arrasatera ekarri gura dute, eta geroago, Deba-

goieneko gainontzeko herrietara zabaldu. Plataforma edo taldea sortuko dute horretarako, gobernu kanpoko zenbait erakunderen artean. Horrez gainera, talde berriari parte hartu nahi duen edozeini zabaldu diote deia.

Bestelakoan artean, **Pobrezia Zero** kanpaina bat egiten duten 189 gobernu buruk 2000n sinatutako Milurteko Aitorpenarekin. Zortzi helburu adostu zituzten:

Atxikimenduen bitartez, boterea duten pertsonen eta erakundeen presioa egin gura diete

Munduan 3.000 milioi pertsona baino gehiagok ez dute bizimodu duinik

munduko pobrezia eta goseari aurre egitea; Lehen Hezkuntza unibertsala lortzea; generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia bultzatzea; haurren heriotza-tasa murriztea; amen osasuna hobetzea; GIB/hiesari, malariari eta bestelako gaitasun batzuei aurre egitea; ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea eta garapenerako munduko elkarteak sustatzea.

Hain justu ere, aipatutako helburu horiek lortzeko presioa egitea da **Pobrezia Zero** kanpainaren bitartez lortu gura dutena.

ZENBAIT DATU

Munduko egoera latzaren gaineko zenbait datu jakinarazi dute **Pobrezia Zero** kanpainaren bitartez: hiesak kutsaturiko 50 milioi lagun daude munduan, gehienak tratamendu barik; 800 milioi lagunek ez dute elikatzeko beste jaki lortzeko aukerarik; 1.100 milioi lagun egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi dira; 10 milioi ume hiltzen dira bost urte bete baino lehen, saihestu ahal diren kausengatik; munduan dauden pobreen %70 emakumeak dira; munduko %10en eskuetan dago munduko aberastasunen %70; eta pobreen %75 nekazariak dira.

Gudari Egunak 30 urte beteko ditu Arrasaten, martitzenean

U.M.

Urtero moduan, irailaren 27an, ezker abertzaleak **Gudari Eguna** egingo du. 19:30ean da hitzordua, Herriko Plazan. Aurten, ekitaldiaren 30. urteurrena ospatuko dute.

Txiki eta Otaegi fusilatu zituzteneko eguna aukeratu zuen ezker abertzaleak **Gudari Eguna** gogo-

ra ekartzeko. 1975ean izan zen hori, eta Arrasaten urte hartan bertan hasi ziren **Gudari Eguna** egiten. Gauzak horrela, aurten ekimenaren 30. urteurrena dela gogora ekarri gura du Arrasateko ezker abertzaleak, eta, bide batez, martitzenean egingo diren ekitaldian parte hartzeko dei egin dute. Bestelakoan artean, "herriaren askatasunaren aldeko borrokan bidean geratu diren" 14 herriki-deak ekarriko dituzte gogora.



ARRASATEKO EZKER ABERTZALEA

Bestelako urteetan baino ospakizun bereziagoa izango da aurtengoa.



Kalitatezko ISO Arizmendi Ikastolari

Pozik hartu dute Arizmendi-koek ISO 9001 ziurtagiria. Kalitatezko kudeaketa egiaztatzen duen ziurtagiria da. AENOR-ko Euskadiko Zuzendaritzak ematen du (Normalizazioaren eta Ziurtagirien Espainiako Elkarteak). Arizmendiren kasuan, Lanbide Heziketari eman diote. LH San Viatorren eta Almenen zegoen garai batean; orain, ostera, unitate bakarra osatzen dute, Arrasaten. Erizaintza, eraikuntza, kimika, kirol eta gizarte zerbitzuen alorreko formazioa eskaintzen dute han. /ARGAZKIA: ARIZMENDI

LABUR

Strip-tease terapeutiko ikastaroa izango da

Emakume Txokoak antolatu du strip-tease terapeutikoa. Urriaren 26an eta azaroaren 2an, 23an eta 30ean dira eskolak. Informazio gehiago behar duenak dei dezala 943 79 14 39 telefonora. Antolatzaileek eskatu dute takoidun zapatekin eta jantzi erosoekin joateko.

Presoen aldeko sentsibilizazio kanpaina

Beste urte batez, espetxe pastoralak sentsibilizazio kanpaina abiarazi du. Pastoraltzako kide Manuel Uribereren esanetan, laguntza eman nahi diete preso guztiei, presoen eskubideak eta duintasuna errespetatuak izan daitezten, besteak beste. Horrez gainera, gizarteak eta inguruak presoekiko bazterkeriarik ez egiteko ere lan egiten dute, baita presoak espetxetik ateratzen direnerako ere. Hori guztiori, taldekideen esanetan, preso guztien alde, ideia politikoen gainetik eta preso dagoen pertsonak egin duenaren larritasuna aparte utzita.

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 23
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

ZAPATUA, 24
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99

DOMEKA, 25
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

ASTELEHENA, 26
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

MARTITZENA, 27
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUAZTENA, 28
Español, Araba etor. 14 943 79 18 65

EGUENA, 29
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09

EGUBAKOITZA, 30
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIK
SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

Arrasate
Astelohenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIARIK
Gipuzkoako Anbulantziari 943 45 87 44

ERTZAINITZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILERAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEKON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:00 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (elebiduna)	Domeka 11:00 (elebiduna)

OHARRAK

GARAGARTZAN, SANMIGELAK
Gaurtik, egubakoitza, domekara bitartean Sanmigelak ospatuko dituzte Garagartzan. Gaur bertsolariak eta dantzaldia egingo dituzte. Bihar, zapatua, meza, arrantzaleen jokoa, futbola, Gorriti eta bere animaliak eta rock kontzertua izango dira. Domekan, berriz, meza, auzo bazkaria eta erromeria.

1952KO KINTOAK
1952ko kintoek urteroko ospakizuna egingo dute urriaren 22an. Urriaren 7a izango da izena emateko azkeneko eguna. Interesatuek honako telefono zenbakietara deitu beharko dute: 943 79 02 02 edo 619 10 42 45.

GURASO ESKOLA
Urritik abendura bitartean Udaleko Prebentzio Sailak guraso eskola egingo du. Izena emateko epea irailaren 28an bukatuko da. Interesatuek jo dezatela udaletxera.

HAINBAT KONTZERTU
Bihar, zapatua, Enboskada eta Never Surrender taldeek erdibana kaleratu duten diskoa aurkeztuko dute gaztetxean, 18:00etan. Horrez gain, Bad F-Line taldeak 3.60. aretoan egingo du emanaldia, 23:00etan.

AEDrenAGENDA

AED-KO BERTSO ESKOLAK
Laster jarriko dituzte abian AEDko bertso eskolak, 2005-2006 ikasturtea hastear dago-eta. Interesa daukaten gazteek jo dezatela AED elkartera.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Emakumearen batzordea lanean hasteko prest

Udalak Emakumearen batzordea sortu zuen. Ordura arte, Ongizate Sailean aztertu zituzten Emakumearen Kontseilutik zetozen gaiak. Lehenik eta behin, politikariei emakumearen egoera sozio-ekonomikoa aditzera eman zieten. Epe laburrean lehenengo batzarra egin gura zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Melatu"



— Kriston melatua artu giñuan Urbixatik Arantzazura bittartian.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA
Domeka, 18 **10 °C**

MAXIMOA
Eguena, 15 **31 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
18,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	26 °C	15 °C	- l/m ²
Eguena, 15	31 °C	14 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 16	24 °C	15 °C	177 l/m ²
Zapatua, 17	16 °C	14 °C	0,4 l/m ²
Domeka, 18	18 °C	10 °C	- l/m ²
Astelehena, 19	20 °C	6 °C	- l/m ²
Martitzena, 20	21 °C	5 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Donostiako Zinemaldia izango dugu berbagai, besteak beste, 'Asteko Gainbegiratua'-n

Azkenaldian agenda beteta dute Telmo Esnal eta Asier Altuna *Kixi* zinema zuzendariek. Hala ere, tartetxo bat egin diote Arrasate Irratiari, eta asteburuan berreskuratuko dugu bikoteak kontatutakoak. Eguenean estreinatzen zen *Aupa Etxebeste* filma, Donostian, eta asteburuan, egubakoitzetik astelehenera bitartean, Amaia Udál Antzokian izango dugu ikusgai.

Astean, baina, Donostiako Zinemaldira hainbat bisita egin ditugu, Goienako berriemaile

Edu Mendibil eta Xabier Mendigurenen eskutik. Batak zein besteak esandakoak ere, asteburuko hitzorduan jasoko dituzue.

TXOKOLATEAZ ERE BAI

Jose Mari Gorrotxategi txokolategilea ere 107.7an izan da. Joan den asteburuan Oñatin egin zuten Artisau Txokolatearen I. Nazioarteko Azokan izan zen, eta Arrasate Irratira ere hurbildu zen. Izan genuen solasaldi goxoa asteburuan berreskuratuko dugu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko gainbegiratua**. Telmo Esnal eta Asier Altuna, zine zuzendariek; Edu Mendibil eta Xabier Mendiguren, Zinemaldiaren gainean; Jose Mari Gorrotxategi, txokolateroa...

DOMEKA
10:00 **Asteko gainbegiratua**.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
10:00-12:00 **UDA GIROAN**
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarriketak
Kirolak
Lorak eta landareak
Merkatu txikia
Bidaia
Zorion agurren tarteak
(Esku hartzeko, 943 71 17 31).

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.

12:30 **Izarren ordua**: abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegi**.

14:00 **UDA GIROAN** (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.

KALEINKESTA/ Donostiako Zinemaldixe dauela aprobetxate, ze eskaketan dutzezu pelikula batei?



JONATHAN MCNEILL
Langillie



AMAIA ARREGI
Erretiraue



OSCAR LAYANA
Ikaslie



GARBIÑE BADIOLA
Etxekoandrie



ANDONI BRAGADO
Ikaslie



EDURNE EZPELETA
Langillie

Hasteko, umiek itxi egin biher dustie pelikulie ikusten; zortzi bider ahaleginddu naz *El señor de los anillos* ikusten, eta sekule be ez dot akabau, atara kontuek. Entretienidue izetie.

Ba, pelikula ona izen daille. Barre egittekuek gustetan jat, baitte sakonak dienak be. Negar egittekuek? Gaztetan nehikue negar egin geuen, eta mal-kuek be gastau egitten die.

Ez daille holako amerikana die izen, tiro askorik ez eukittie... Gizartien dauzen problemak tratetan dauen pelikulak gustetan jat, rebindikatiebuek... Zeozter kontau daixela.

Ze egun dauketen... Batzuetan gustora ikusten dot pelikula sakonak, baiñe beste batzuetan entretenidute egon edo barre apur bat egittiekin nehikue izeten da.

Ordu eta erdi entretenidute egotie, eta barre egitten badot, askoz be hobeto. Maittasunezko pelikulak ez jat bape gustetan, horreik urrin. Danak izengo balitzez *El sexto sentido* modukuek...

Entretienidute egotie, beste barik... Batzuetan gustora egoten zara pelikula bat oso kontzentraute ikusten, baiñe beste batzuetan barre apur bat egittiekin, nehikue eukitten dot.

USTEAKUSTE

Uranga

T amalez nire azkeneko bi *Usteak Uste* nekrologikoak izan dira.

Aurrekoan *Jabilo* gogora ekarri nuen, gertutik ezagutu nuelako, eta bizi izan zuena azpimarratu gura nuelako. Oraingoan Jose Mari Urangaren heriotza ekarri dut lerro hauetara. Ez nuen bera ezagutzeko aukerarik izan, baina Jose Letonak eta beste batzuek egin zuten moduan, Arrasateko historia jasotzeko eta batzeko lan ikaragarria egin zuen. Horren emaitza dira argitaratu zituen liburruak eta batez ere etxean bilduta zeukan informazio guztia. Badakit gai edo gertaera jakin baten gaineko informazioa eskatuz gero, beti laguntzeko prest egoten zela. Askok dakite hori.

Ez dut esango Arrasateko azkeneko historialaria galdu dugunik, baina bai garrantzitsuenetako bat. Berak batutako guztia ez dadila galdu. Ezin liteke esfortzu guzti hori hutsean galdu, berak ez luke gura.

Herri bateko historia bertakoez egiten dute, baina oso garrantzitsua da norbaitek hori guztia jasotzea. Oso zaila da une bakoitzekoa bizi eta aldi berean jasotzea. Batzuek egiten dute eta horiei zor diegu iragana ezagutzeko, eta hortik ikastea. Hori barik, ez ginatete garenak izango.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ADIERAZPEN LIBREKO GUNEA Irakurle batzuek aditzera eman digute pozik daudela Udalak horma-irudiendako egokitu-tako panela ipini duelako. Elkarteek erabili ahal izango dute. Arbolapetan kokatu dute, eta Adierazpen libreko gunea izena jarri diote. Euren esanetan, horrelako guneak premiazkoak dira, Udalak hormetan dauden horma-irudiak kentzen dituelako. Jakin dugunez, Udalak aspaldi agindu zuen panel horiek jarriko zituela. Erantzunaren arabera, Portaloian eta beste leku batzuetan ere jarriko dituzte.

ASTEKODATUA

300

**KILO BUZKANTZ SALDUKO
DITUZTE GARAGARTZAN**

Garagartza auzoa San Migel jaientan murgilduko da asteburuan, eta ohiturak esaten duen moduan, buzkantza jateko aukera izango da. Egubakoitzean eta zapatuan salduko dute auzoko etxean. Baietz aurten ere 300 kilogramoak agortu!

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



Bakearen Prozesua

Irailak dakarkigu ziklo politiko berria. Aspalditik ez zaizkigu agertu bakearen aldeko hainbeste faktore faboragarri eta orain bakea lortzea bihurtu da gure gizartearen helburu garrantzitsua. Badakigu gainera gure herriak duen erabakitzeke ahalmena, herritarren partehartzea eta lurraldetasuna soluzio biderako giltzarri direla.

Alta, prozesua heldua dagoenez, metodologia zehatza eta landua daukagu. Indar politiko guztietako mahai batean, bakearen eduki politikoak zehaztu behar dituzte. Eztabaida eta elkarrizketen emaitza izango dira edukiak. Mahai horretan hartutako erabakiek gure gatazka historikoa gainditu beharko lukete. Estatuaren eta ETaren arteko beste mahai batek desmilitarizaziorako ekimenak gauzatu beharko lituzke.

Baina, prozesua benetan sinesgarria izan dadin, eskubideekiko errespetuan oinarritu

beharko litzateke. Partehartzailer guztiek euskal herritarrei dagozkien eskubide indibidual eta kolektiboak errespetatu. Eskubideekiko tratamendua integratzailea eta osoa izatean datza soluzio bidea. Gatazkaren zergatien dauden eskubideen urraketa; eta Estatuak, errepresioa eta erresistentzia urratzen dituzten eskubideak ere kontsideratu. Terapiaren izaera integrala izatea ezinbestekoa da hemen.

Sustrai historikoa dauzkan gatazka armatu hori konpontzeko, estatuak ez

dute sekula santan halako erraztasunik izan. Arazoa, beti bezala, estatuetakoa demokrazia gabezia dago. Baita sistema horietan integratuta dauden eta ondo bizi nahi duten beste aldean jarrera eta joeretan ere. Eta hor dago gako; eskubide guztien urraketa kontuan hartzea soluzio bidearen oinarria bada, herritarren partehartzea, bultzada, ahotsa, inteligentzia eta ekimena dira berme bakarrak.

"Sustrai historikodun gatazka armatua konpontzeko, estatuak ez dute inoiz halako erraztasunik izan"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zehitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioiko
Udala



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Zarautzen kontrako norgehiagokan zozketatu zuten otarreko zenbaki saritua 2.073 da.

FUTBOLA ETA SASKIBALOIA/ Emaidza txarrak ahaztu guran

Mutriku Atxabalpen, eta Mugarri Alkesa Goierrira

XABIER URTZELAI

Joan den asteburuak zapore garratza utzi zuen bai futbolearen eta baita saskibaloian ere. Denboraldia ondo baino hobeto hasi duen Mondrak atzerapausoa egin zuen Ordizian; emaitzagarri baina gehiago, erakutsitako jokoagarriak. Mugarri Alkesak, berriz, gaur jokatu du bigarren partidua.

Goierrri aldean ahaleginduko dira Gorka Zurututzaren mutilak denboraldiko lehenengo garaipena erdiesten (20:00). Gaurko kontrario Goierrri-Verkolek ere ez du denboraldia gura moduan hasi, Paduraren kantxan 11 puntuko aldeagatik galdu zuten-eta (93-82). Hala, lehenengo norgehiagoka galduta ere, erakutsitakoa baino gaitasun askoz ere handiagoa daukaten bi talde izango dira gaur arratsaldean nor baino nor gehia-

go. Mugarri Alkesakoak Tabirakoren kontra egindako hutsegiteak saihesten ahaleginduko dira: defentsan sendotasun handiagorekin, eta eraso egin ere, talde moduan bada, hobe.

MONDRAK MUTRIKUREN BISITA

Oraindik sailkapenak erreferentzia moduan balio ez badu ere, zortzigarren postuan dagoen Mutriku izango da zapatuan Atxabalpen. Orain artekoa ikusita, Zestoa gauza izan zen euren futbol zelai txi-

kian mutrikuarrei aurre egiteko (2-0). Hala, kostaldeko taldeak oraindik ez du etxetik kanpo punturik eskuratu. Hori bai, Mutriku jokatu dituzten bi norgehiagoketako (Aretxabaletaren kontra 2-0, Allerruren kontra 3-0) argi erakusten dute dituzten bi aurrelariak oso arriskutsuak direla.

Joan den asteari dagokionez, Ordiziak aukerak aprobetxatzearekin nahiko izan zuen partidua irabazteko. Partiduko minutu askotan galduta ibili zen Mondra: baloi geldiko jokaldietan egin ezin daitezkeen akatsak; zelai erdian jokoa antolatzeke zailtasunak; intentsitate falta... Gordobilaren mutilei lehenengo minututik kontrako eztauritik sartu zitzairen partidua, eta lehenengo zatian norgehiagoka berdintzea lortuta, azken minutuetan 1-2koa jasotzeko min egin zien. Onena, azkeneko minutura arte ahalegindu zirela emaitzari buelta ematen (3-2).

*Erakutsitakoa
baino gaitasun
handiagoko bi talde
dira Arrasatekoa eta
Goierrrikoa*

Herriko gaztetxoek errugbian jokatu ahal izango dute bihar

X.U.


Arrasate Errugbi Taldekoen eskutik, Arrasateko LHko 5. eta 6. mailetako, eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleek errugbian jokatu ahal izango dute bihar, Atxabalpen. Kirol hori ezagutzeko jolasak egingo dituzte.

Herriko kirol talde batek harrobi sendoa behar du, eta hori bultzatu guran, ARTkoek Arrasateko gaztetxoak gonbidatu dituzte Garagartzako zelaira, hainbat jolasen bitartez kirol hori eza-

gutsera. Bihar, zapatua (10:00), Garibai etorbideko autobus geltokian elkartu, eta autobusean joango dira guztiak Garagartzara, goiza ederto igarotzera.

BETERANOEK 10 URTE

Orain dela 10 urte jokatu zuen Arrasateko Herensugeak taldeak lagunarteko lehenengo norgehiagoka, Bordeleko Archivald taldearen kontra. Eta, ospakizun modura, orduko taldearen kontra eta Eibarko beteranoren kontra neurtuko dituzte indarrak bihar (17:00), Garagartzan.



Joan den astean, Arrasateko talde sendoa eraman zuen Eibarrera; berri ona da hori.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Mutriku

Preferentea. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.

Zumaiako - Mondra

Ohor. Gazteak. Zapatuan. 17:00. Zumaiain.

Arrasate - Usurbil

Big. Gazteak. Domekan. 16:00. Atxabalpen.

Arrasate - Urnieta

Kadet. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.

Orioko - Arrasate

Infantilak. Zapatuan. 11:30. Orion.

Mondra - Ilintxa

Emakumezkoak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

Arizmendi Arrasate - Urki KF-8

Kadete neskek. Zapatuan. 11:00. Almenen.

SASKIBALOIA

Goierrri-Verkol - Mugarri Alkesa

Lehen maila. Egubakoitza. 20:00. Urretxun.

Mugarri Alkesa - Zarautz

Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Musakolan.

Loiola - Mugarri Alkesa

Juniorrak. Domekan. 12:00. Donostian.

ERRUGBIA

Arrasateko gaztetxoendako jolasak.

Zapatuan, 10:00etan, Garagartzan.

Herensugeak - Archivald - Eibar

Zapatuan, 17:00etan, Garagartzan.

ESKUBALOIA (MIKEL DEUNA TXAPELKETA)

Aloña Mendi - Arrasate (finala)

Domekan, 18:00etan, Oñatin.

EMAITZAK

ESKUBALOIA (MIKEL DEUNA TXAP)

Arrasate - Bergara. 22-22

MEHER

Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Maritxutarako eskaintza zabala
arropa eta osagarrietan.

Lilura

OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako
zure gustuko soinekoa.
Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Herriko historialari handienetako bat, Jose Mari Uranga, hil egin zen eguaztenean


IKER BARANDIARAN/ARRASATE IRRATIA

Herenegun, eguaztenean, Arrasateko historialari ezagunenetakoa zen Jose Mari Uranga hil egin zen. Aspaldian osasunez makal zebilen eta Aita Menni ospitalean zegoen. Eguenean egin zituzten haren aldeko elizkizunak, San Juan Bataiatzailearen elizan.

Eguazten arratsaldean jaso genuen berria. Jose Mari Uranga Arregi hil egin zen. 89 urte zituen; 90 urte beteko zituen abenduaren 31n. Izan ere, bagenekien aspalditik osasunez makal zegoela, eta dagoeneko ez zen kalera irteten. Nekatuegi zegoen horretarako, eta etxean ibiltzen zen batutako informazioa arakatu eta aztertzen.

Eguenean egin zituzten haren aldeko hileta elizkizunak San Juan Bataiatzailearen elizan. Hainbat herritarrek azken agurra eman zioten.

Jose Mari oso ezaguna zen herrian. Jose Letona defuntuari berekin batera, Jose Mari Uranga izan da azkeneko hamarkadetan Arrasaten egon den historialari garrantzitsuenetakoa. Ez zuen liburu askorik argitaratu (1970ean *Mondragón, trayectoria*



ARRASATE PRESS

Honako hau 1996an Jose Mari Urangari egindako argazkia da.

y anecdotario), eta zenbait aldizkaritan artikuluak idatzi zituen (besteak beste, *Vida Vasca*-n 1942an eta 1943an), eta etengabe ibiltzen zen dokumentazioa bila-

tzen, aztertzen eta horren gainean idazten. Askok jotzen zuten harengana, etxera, gairen baten edo gertaera jakin baten gaineko informazioa eskatzera, eta diote-

nez beti laguntzeko prest egoten zen. Are gehiago, Josemari Velez de Mendizabalen esanetan, "Urangari amorru handia ematen zion Arrasateren historiaren gainean akatsak edo esamesak argitaratuta edo idatzita ikustea". Hori da haren lan egiteko moduaren erakusle. Izan ere, Velez de Mendizabalen esanetan, "Uranga historialari zorrotza zen, eta esaterako, kondairak eta esamesak ez zituen aintzat hartzen, azterketa sakona egin eta ziur egon artean".

Udal Liburutegian, besteak beste, Jose Mari Urangak Arrasateren eta bere historiaren gainean idatzitakoak dituzte gorde-ta. Interesatuak kontsulta dezakete han dagoena, eta harrituta gera daitezke jaso zuen guztia ikusita. Herriaren historiaren esparru gehienak aztertu zituen Urangak, lan izugarria eginda.

Josemari Velez de Mendizabalek hartu-eman handia izan zuen harekin, eta Arrasate Irratian azaldu zuen Uranga maisu izan duela, "bide bat zabaldu zuelako, gero beste batzuek jarraitu duguna". Horrez gainera, aditzera eman zuen Zerrajeran 50 urtez lan egin zuela, herrigintzan lan handia egin zuela, eta 9 urtez zinegotzi izan zela udaletxean.

Herriko bi punk-Oi! talderen elkarlana plazaratuko dute bihar gaztetxean

I.B.

Bihar, zapatua, kontzertu berezia egingo dute gaztetxean. Never Surrender eta Enboscada talde arrasatearrek elkarrekin grabatu duten diskoa aurkeztuko dute. Goiz hasiko dute jaialdia, 18:00etan, eta dagoeneko 500 disko saldu dituzte astebetean.

Enboscada eta Never Surrender taldeek punk eta Oi! musika estiloenganako zaletasuna dute komunean. Horrez gain, aspal-

dian gaztetxe gaineko entsegu lokaletan alboan entseatzen dute, askotan kontzertuak elkarrekin egiten dituzte, eta, horren guztiaren gainera, lagunak dira.

Iaz Ondarroako lagun batek estudioan grabatzeko eskaintza egin zienean, baiezkoa eman zioten. Abenduaren eta 2005eko urtarrila bitartean seina kantu grabatu zituzten, eta beste bat (*Mondra*) bi taldeek batera.

NEVER SURRENDER, GOGOTSU DATOZ
Enboscada taldea 1997an sortu zuten. Kontzertu asko egin izan

dituzte, eta iaz Danbaca Debagoieneko I. Musika Lehiaketarako sailkatu ziren. Ez hori bakarrik: Ikusleen saria irabazi zuten.

Never Surrender talde gazte-agoa da. Izena Blitz taldearen kantu batetik hartu dute, eta *Inoiz ez etsi* esan gura du. 2003an hasi ziren jotzen, eta bi urtean 30 emanalditik gora egin dituzte.

Kantuetan dituzte berberagai etorkinen aldeko hitzak, Nafarroako historia, lagunik ez baztertzea, gerrak, presoak eta beste. Joan den astean, diskoaren 500

kopia jarri zituzten salgai hainbat herritan eta jada guztiak agortu dira. Dagoeneko egin dute eskaera fabrikari, kopia gehiago egin ditzaten.

BAD F-LINE, 3.60 ARETOAN

Bestalde, bihar, zapatua, Bad F-Line talde arrasatearrek emanaldia egingo du 3.60 aretoan. Denbora luzea pasa da talde horrek Arrasaten azkeneko aldiz jo zuenetik. Techno-industrialak egiten dute, punkaren jarrera apurtzailea uztartuz, eta estiloen mugak gaintuz.

Maritxu egunean
zoragarri egon zaitezten...

Lore

Olarte kalea 10 Tel.: 943 79 52 50
ARRASATE

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa
- Solariuma
- Makillaje

LABUR

Bertso txapelketako kanporaketa bat Arrasaten

Bertsozale Elkarte buru-belarri dabil Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia antolatzen. Txapelketako lehenengo kanporaketa urriaren 5ean egingo dute Lekunberrin. Eta finala Barakaldon, Bilbao Exhibition Centerren egingo dute, abenduaren 18an.

Bertsozale Elkarteak aditzera eman digu urriaren 23an (domeka) azken laurdeneko bat egingo dutela Arrasaten, Amaia Udal Antzokian. Hona-ko lagunak esku hartuko dute: Aitor Sarriegi, Estitxu Arotzena, Nahikari Gabilondo, Harkaitz Goikoetxea, Harkaitz Estiballes eta Iñaki Zelaiak, hain zuzen ere. Sarre-rak salgai jarriko dituzte.

'Aupa Etxebeste' filma emango dute lau egunean

Gaurtik, egubakoitza, astelehenera bitartean, *Aupa Etxebeste* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Gaur, 22:00etan; zapatuan, 19:30etan eta 22:00etan; domekan, 19:30etan; eta astelehenean, 20:30etan.

Astean estreinatuko dute Donostiako Zinemaldian, eta berehala ekarri dute Arrasatera. Asier Altuna *Kixi* bergararrak eta Telmo Esnal zarauztarrak egin dute azken 13 urteotako euskarazko film bakarra.

Urriaren hasiko dira Literatura Solasaldiak


Udal Liburutegiak Literatura Solasaldiak antolatuko ditu hasi berri den ikasturterako. Urri-tik hasi eta 2006ko ekainaren bitartean egingo dituzte.

Interesatuak Monterronera jo beharko dute, eta urriaren 15a dute azkeneko eguna. Gaztelerako solasaldien koordinatzailea Rikardo Arregi izango da. Euskarazkoena, berriz, Iban Zaldua izango da. 18:30etik 20:30era izango dira hitzorduak.

Urriaren 25ean, Harkaitz Canoren *Belarraren ahoa* izango dute berbagai; azaroaren 22an, Graham Greeneren *Giza faktorea*; eta abenduaren 20an, Anjel Erroren *Eta Harkadian ni*.

Gaztelerazkoei dagokienez, urriaren 27an, Michael Houellebecq-en *Plataforma* aztertuko dute; azaroaren 28an, Georges Perec-en *La vida, instrucciones de uso*; eta abenduaren 15ean, Jaime Gil de Biedmaren *Las personas del verbo*, hain zuzen ere.

PUB
HAIZEA



BOTEPRONTUEN

Arantzazu Lagunilla

ARTEMAN KOMUNIKAZIOA

XABIER URTZELAI

Enpresaritzaz ikesitte, publizitate alorrien espezializatu zan Arantzazu. Eta, hainbat lekutan egon eta gero, ARKOn topau euen ikesittekue praktikan jarteko lekue. Hasieran, aldizkari honetarako publizitatie lortzen. Oin, barriz, Artemanen lanien.

Ze da Arteman?

Arteman Mondraguen dauen diseinurako eta komunikaziñorako agentzia euskaldune da; hola-xe definituten dot neuk.

Eta, ze lan egitten dozue enpresa horretan?

Esango neuke geure zerbitzu eskaintza oso zabala dala.

Zatike juengo gare, orduen.

Batetik, komunikaziño grafi-kuen oiñarriketan dou geure jardunan zati bat. Bertan sartuko geuke irudi korporatibuen disei-ñuek, kartelak, folletuek...

Beste arlo bat izengo litzake enpresendako bideratute dauzen urteroko komunikaziño planak; eta, hor sartuko geuke, adibidez, Gipuzkoako Udal Euskaltegixen-dako egitten doun kanpaiñie: prentsaurrekuek preparau, egin bihe-rreko publizitatie diseñau, web-guneak egin eta kudeatu...

Bideo ekoizpenekin be hasi zarie lanien.

Halaxe da, bai. Bestiek beste, Eskoriatzako Ibarraundi Museuen inauguraziñue dala-eta, Udalan-dako egin geuen Eskoriatzan gai-ñeko DVD bat. Helburue zan turis-mue bultzetu, museuen gaiñeko informaziñue emun, irudi ikusgar-rixez jaso... Oin, bestiek beste, RIP musika taldiek 25 urte egin daue-la-eta, horren gaiñeko beste DVD bat gabitz preparetan.

Zelako klientiek etorten die zeuen zerbitzuek kontratau guran?

Danetik dau. Egixe da, enpre-sa maillan, erakunde maillan, hezkuntza arloko eta bestelako elkarte haundixekin egin doule lan. Baiñe beste kliente batzuetara be zabalik gauz. Azken baten, pre-supuesto bat finketu, eta geuk



“Arteman diseiñue eta komunikaziñue lantzen dauen agentzia euskaldune da”

“Beste gauza askoren artien, bideo ekoizpenak eta webguniek be egitten dou”

rekomendau geike diru hori publizitadien zelan inbertidu onduen. Badauz beste enpresa batzuk argi daukienak ze gure dauen, eta geure esku jarten daue hori egitteko lana.

Komunikaziño munduen aurrera egittie ez da errexa izen-go.

Ez, Euskal Herriren agentzia oso haundixek eta onak dauzela-ko. Baiñe esango neuke geure alde fuertie dala euskeraz pentsetan doule, eta hizkuntza horretan egitten doule lan.

Zetan zabitze momentu honetan lanien?

Hainbat gauza daukou esku artien. RIPen DVD, MUK atarako

dauen aldizkarixen diseiñue, Eusko Labelaren Debagoieneko kanpaiñie... Hamen ez dau geldi ego-terik.

Zeuen laneko gauza onena?

Lan oso dinamikue dala, ez dauela aspertzirik. Azken baten, gauza diferentiek egitten dou, eta egunero ikesten dou zeozer. Alde horretatik, oso lan kreatibue da, eta eskertzekue da hori.

Eta txarrena?

Askotan gatxa izeten dala etxe-ra juen eta deskonektetie, buruen gauza asko eukitten douleko buel-taka: hau eta bestie egin biher dot bixer... Kalien be, kliente batekin elkartu, eta gauzak zelan doiezen galdeketan dutzu.

NIREBIDAIAHURA/ Haritz Zubiate

Panamara / 2005eko udan.

Askapena taldearekin batera izan dira Haritz Zubiate, Jokin Orobengoa eta Beñat Irazabal Panaman. Arrasateko hirukotea Euskal Herrietik joandako beste sei lagunekin joan zen Ertamerikako lurralde horretara. Hiriburuan egin zuten lehenengo astea, eta Kuna Yala ibarrera joan ziren gero: “Leku berezia da hura, nolabaiteko askatasuna daukate-eta Panamarekiko. Oihanarekin batera, 365 uharte inguru dituzte; eurek esaten duten moduan, urteko egun bakoitzerako uharte bat”.

Panamako Karibeko ekialdean dago Kuna Yala bailara, eta diotenez, bertako biztanleak sasoi batean Kolonbiako iparraldetik emigratutakoen oinordekoak dira. Panamak 1903an lortu zuen Kolonbiarekiko independentzia, baina Kunen lurraldean Panamako polizia sartu zenean etorri ziren arazoak. Kunek ez zuten begi onez ikusi hori, besteak beste, euren kultur ohiturak debekatu egin zituztelako. Hala, Kuna komunitateak Nele Kantuleren gidaritzan aurre egin zion Panamari, Tule izeneko iraultzan (1925).

Eta orduan egindako borrokari eta ordutik hona egindako presioari esker dituzte gaur egungo eskubideak: “Askatasun handia duen herria dela esango genuke, baina jasotzen dituzten medikuntza eta hezkuntza zerbitzuak Panamak eskaintzen dizkiene da, eta hortxe daukate mendekotasun apur bat. Dena dela, guretako kontrajarriak ziren hainbat jarrera zituzten. Esaterako, eta nahiz eta Panamaren kontra borrokatu, euren banderarekin batera Panamako jartzen zuten ondoan, eta harro gainera. Horrelakoak ulertzea gaitza da guretako, baina gauzak ez dira leku guztietan berdin”. Karibeko bazter horretan jarraituko dugu datorren astean ere.



“Diotenez, urteko egun bakoitzerako uharte bat daukate”

“Panamaren esku daude hango hezkuntza eta medikuntza”

XABIER URTZELAI



Arrasateko hirukotea Euskal Herrietik joandako gainontzeko lagunekin.

IBARRAUNDI MUSEOAREN HITZALDIAK

Gure aztarnen bila

TOKIA: Ibarraundiko hitzaldi aretoan, Eskoriatza

NOIZ: Irailak 23. Arratsaldeko 19:00tan.

TELEFONO ZKIA: 943 715 453



HIZLARIA: Félix Ares Miramon Kutxaespazioko zuzendaria
GAIA: Unibertsioaren sorrera
NOIZ: Irailak 29

HIZLARIA: Álvaro Arrizabalaga, Lezetxikiko indusketen zuzendaria.
GAIA: Euskal Herriko historiaurrea: Lezetxiki.
NOIZ: Urriak 6

'TXARLI'-REN EZKON AURREKO PARRANDA, EUSKAL JAIETAN

Zarautzen atera zuten Txarli-k eta lagunek erretratua. Euskal Jaia zela-eta, baserritar jantzi ziren lagunak, eta gona galanta eta zapi zuria eman zizkioten Rauli. Bistan da guztiek ez zituztela jantziak lortu, baina Paparra-k eta Banpi-k zin egin dute Aretxabaletako San Migel jaietara *kaxerito* jantzita joango direla. Ezkon aurreko parrandari dagokionez, esan gabe doa erretratua atera orduko txakolin batzuk edanda zituztela. Eta Raulen gainean esan, zapatuan ezkonduko dela Izarrekin, Apotzagan. Dakigunez, Txarli-k Karibe aldera eramango du baserritar jantzia. Koadrilakoen partetik, zorionak!!!



ARRASATEKO HERENSUGEK HAMAR URTE BETE, ETA ASTEBURUAN EGINGO DITUZTE OSPAKIZUNAK

1 995ean hasi ziren Arrasate Errugbi Taldeko beteranoak lagunarteko norgehiagokak jokatzen, eta orduan sortu zuten Herensugeak taldea. Orduan 20 lagun inguruk osatzen zuten taldea, eta Bordeleko Archivald taldearen kontra jokatu zuten lehenengo partidua. 10 urte geroa-

go, eta taldean 35 lagunekin, orduko kontrarioaren aurka jokatuz ospatu gura izan dute urteurren berezia. Zapatuan izango da errugbi jaialdi berezia, 17:00etan Garagartzan. Eta, biharko Eibarko beteranoak ere gonbidatu dituzte, hirunako txapelketa jokatzeko asmoarekin.

UARKAPE J A T E T X E A

Bueltan gaituzu!!!

- Eguneroko menuak
- Bokatak
- Plater konbinatuak

Otalora Lizentzuaduna 10. Tel.: 943 77 20 04

*Egunak merezi
duelako!*

Marixutarako
elegante
jantzi zaitez!

Sikol

Olarte 31 - ARRASATE
Tel.: 943 79 89 32



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



'SEBERO ALTUBE' LIBURUA

Arrasaten jaio arren, nongo alkate izan zen Seber Altube?
Arrastoa: herri bizkaitar hartako abesbatza ere sortu zuen.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

*Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

Dorita atun argia landare-olioan
260g-ko lata

1,95 € 324 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

RAFA LEUNDArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Rafa!
Galderen erantzun zuzena:
Mojategiko lehen harria ipintzen.

ARRASATEKOHISTORIA

Presondegitik ihes egitea lortu zutenekoa

'ARRASATE, KOOPERATIBA BATEN...'

Berriro ere berbagai dira Espainiako gerran preso edo langileen batailloietan egon zirenak. Horregatik geuk ere gai bera aukeratu dugu eta sasoi hartako pasadizo bat ekarri dugu gogora, *Arrasate 1936 Belaunaldi Etena* liburuari esker: Salvador Lazpiurrek kontatutako lekukotasunetako bat da honako hauxe:

"Gillermori Lasagabaster eta Fermin Ibañez Santanderko Corbanen atxilotu zituzten; nazionalen artean zeuden arrasatear batzuek esan zieten, ez omen zitzairen ezer gertatuko.

Goizero, oso goiz, kamioitxo bat ateratzen zuten preso beteta, fusilatzeke; horretarako, bakoitza nongoa zen, herri hartatik bidali behar zituzten informeen zain egoten ziren; eta txosten horretan zehazturik etortzen zen zer egin behar zitzaion preso bakoitzari.

Egun batean Gillermoren informea iritsi zen, Arrasatetik bidalia. Geratu zen kasualitatez Donostiako gazte batek Gazteria Sozialistakoa zenak irakurri zuela (bulegoan lan egiten zuen), eta txostenak zioenaren berri eman



'ARRASATE 1936 BELAUNALDI ETENA'

Sozialistak erbestean; tartean Salvador Lazpiur ageri da: goian, ezkerretik hasita bigarren gizonekoa da.

zion Gillermori; txostenean zionagatik garbi zegoen Gillermok kamionetara joango behar zuela; pentsatuz zer zetorkion familiari agur eginez gutun bat idatzi zien, eta fusilatu behar zutenerako diskurtso bat prestatzen hasi zen. Une horretan, ordea,

"Goizero, oso goiz, kamioitxo bat ateratzen zuten preso beteta, fusilatzeke"

non esaten dion Ferminek: 'Aizak, seguru nire txostena iristen denean ere hirearen bidez berbera hartuko duela. Egin behar duguna ihes egitea duk'.

Gillermok bazituen bere zalantzak: ez zuten dirurik, ez planorik ere; bertan geratzea,

ordea, askoz ere txarragoa zen. Ihes egin zutenenik Frantziara iritsi zirenera bitartean 38 egun igaro zituzten. Egunez lo ta gauzez ibili, Gorbeiaraino iritsi ziren; han perretxiko batzuk jan zituzten; basozain batek atxilotu egin nahi izan zituen, baina haiek ez zuten amorerik eman eraman zitzan, eta utzi egin zituen.

Handik Aramaioraino iritsi ziren, ezagutzen zuten baserri batera; jaten eman zieten, baina aita parte ematera joan zen. Hurrengo egunean Beasainen ia topatzen dituzte txapel gorritz jantzita ehizean zebiltzan Garagartzako ehiztari batzuek. San Cristobalگو altxatuen trintxeretan egon ziren; eta Zigorrolako baserriar batzuen bidez Anjeles, Gillermoren emaztearekin harremanetan jarri ziren; hark dirua eta jantziak eman zizkien, eta horrela mugaz bestaldera igarotzea lortu zuten.

Fermin Ibañez gero ere guduan aritu zen, Alemanen kontrako makian Marseilla aldean. Urte haietan, 1939, 40, 41, Alemaniarrak maki bat harrapatzen zutenean, bertan fusilatzen zuten; beste horrenbeste egiten zuen makiak alemanak harrapatzen zituenean, begia begi truk".

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.:943 79 81 79

Ordutegia:09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa



Maritxu nora zoz...
Iturrira Bartolo...
na...
iturrian ber dago...
ardotxo suria...
biok edango...
nahi degun...

Zure ametsetako trajea dugu...

Aukerarik zabalena
festarako soineko,
barruko moda
eta osagarrietan.



Maritxu Kajoi
2005

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62

San Migelak 05



OGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Ante
garajea

Garagartza
auzoa, 9
Tel.: 943 79 82 59



**TXAPA ETA PINTURA
KONPONKETAK**



Belun

Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14



obate HARROBIA
obaundi HORMIGOIAK

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK

Ondo pasau Garagartzako jaixetan

Tel.: 943 71 24 03. Faxa: 943 77 02 51 Posta kutxa: 85. Garagartza auzoa.



Egitaraua:

Irailaren 23an, BARIKUE edo EGUAKOTXA

19:30: Jaixen hasierie, ikurriñe igo eta etxaflero jaurtiketie.

19:45: Bertsolariak: gure bailara eta inguruko bertsolari gaztiek etorriko diez.

22:00: Dantzaldixe TXINPARTA taldearekin. Gaberdixen Lamiñei eta Neanderthal gizonei ongi etorrixe. Horren ostien dantzaldixe. Gabien bolatokixe danontzako zabalik.

Irailaren 24an, ZAPATUE

12:00: Meza, auzoko hildakuen alde.

12:00-14:00: KULKI (arrantzaleen joko eta jolasen jaixe).

16:00-18:30: Garagartzako II Open futbol partiduek (umiendako).

18:30-20:30: Gorriti eta bere animaliak.

21:00-01:00: Rock jaialdixe: Garagartzako II. Neanthertal rock kontzertua.

Gabien bolatokixe danontzako zabalik.

Irailaren 25ean, DOMEKA

12:00: Meza nagusixe.

12:30: Txikitxu taldiaz euskal dantzak.

14:30: Auzo bazkaixe.

Bazkalostien Erromerixie, HAITZAMA taldiaz.

Irailaren 29an, EGUENA (atsaldien)

19:00: Mezie, Samigelen ohorez

19:30: Luntxe, Patxizenien

Barikuen eta zapatuen buzkentzak egongo die atsaldeko 7retatik aurrera, auzoetxien.

*Paraje eder
baten kokatua*



Arteaga

Landetxea

*Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82*

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 23a

394. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: 55378/94

FELIS BELTRAN DE HEREDIA ETA MARTIN GARAI/HERRI ANTOLAMENDU ETA SEGURTASUN SAILEKO ZINEGOTZIA ETA UDALTZAINBURUA

“Lur azpiko aparkalekuak dituztenek bertan utzi beharko dituzte autoak urriaren 2an”

ARETXAGAZETA

Gainean daukagu kilometroak jaia, eta horrek aldaketa asko eragingo ditu herriko kaleetan. Horren berri eman gura dute Udaleko Herri Antolamendu eta Segurtasun sailatik Felis Beltran de Herediak eta Martin Garaik.

Kilometroak taldearekin batera egin duzue lan urriaren 2ko jaia antolatzeko.

Bai, hala da. Izan ere, kilometroetako ibilbidearen zati garrantzitsu bat gure herritik pasatuko da, herri barrutik, eta xehetasun asko hartu behar ditugu kontuan herritarrei ahalik eta enbarazu gutxien egin eta kalterik izan ez dezagun.

Eskaera zehatzik egin gura diezue herritarrei?

Bai, pazientzia eta laguntza eskatzen diegu; izan ere, milaka lagun etorriko dira, autobusak eta autoak barra-barra... Eta gure herria gertatu egin behar dugu arazorik ez izateko.

Aldaketak egongo dira kaleetan, ezta?

Bai, noranzko bakarra duten hiru kale bi noranzkotan jarriko ditugu; hortaz, kale horietan ezin du inork aparkatu. Behar-beharrezkoak dira kale horiek, ustekabeak gertatuz gero autoek nondik irten izan dezaten. Errekarren; Andramari, Txakoli tabernatik Araba ibilbideraino; eta Zaraia kale ostekoa, Belorrieta hain zuzen, dira aldaketak izan-



M.A.

go dituzten kaleok. Gogoratu ezin go dela autorik aparkatuta egon.

Eta autoak ez pasatzeko kalerik itxiko duzue?

Bai, ibilbiderako hautatu

dituzten bi kale itxiko ditugu: Bizkaia eta Araba ibilbidea. Hortaz, ezin da autorik egon kale bi horietan. Bestalde, ibilbide barruan geratzen diren kaleeta-

tik, hau da, Araba ibilbidea zeharkatu behar duten kaleetatik ezin da autorik mugitu egun guztian. Hala, kale horietako bizilagunen batek autoa behar izan-

go duela jakinez gero, aurreko egunean utzi beharko du mugitze arazorik ez dagoen lekuan.

Kanpotik datozen autoek ezin duzue gure herrian utzi?

Ez, autoetan datozenak Arrasate, Eskoriatza, Bergara eta Oñati bidaliko dituzte, eta handik autobusetan etorriko dira. Bederretan egongo da Arrasateetik datozenendako geltokia, eta gero, Oñati, Durana eta Mitarte kaleak zeharkatuta sartuko dira ibilbidean. Beste geltoki bat Geltoki plazan egongo da, Azbe lantegi parean. Antolatutako autobusak Ederlan lantegian geldituko dira, eta hantxe bertan sartuko dira ibilbidean. Hori bai, autobus geltoki izango diren guneeak auto barrik egon beharko dute.

Hortaz, aparkaleku guxtiango egongo dira herrian...

Bai, berrehun inguru, Ederlan eta institutu ingurukoekin. Egun horretan lur azpiko aparkalekua duten guztiei bertan aparkatu dezaten eskatzen diegu. Jaia 09:30ak inguruan hasiko da; hortaz, 09:00etarako, esandako toki guztiek libre egon beharko dute. Hori ez bada gertatzen, garabak eramango ditu autoak eta isuna jasoko dute jabeek.


Larrialdirik gertatuz gero zer egingo duzue?

Eusko Jaurlaritzak onartutako larrialdietarako plana jarriko dugu abian. Haren arabera, tabernekin ezin duzue jarri kanpoko barrarik, ezta terrazarik ere, ibilbidea hustu beharra gertatuz gero ez izateko eragozpenik.



Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com



FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 24
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 25
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basoboa	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Instituta	943 79 79 00
Kiról etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazte-erria	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Oralora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Pistetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Erizaintza	943 79 71 99
Gurutz Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE

PARROKIA
Domeketan: 11:30
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA

Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:

GOROETA
Domeketan: 12:30

ARKARAZO

Domeketan: 11:30

GELLAO/IZURIETA/GALARTZA

Ez dago mezarik.

AUTOBIDEA EGITEKO BEHAR DITUZTE LURROK

Lurren desjabetzeak egingo dituzte, astelehenean hasita

M.A.

Astelehenean hasi eta egubakoitza bitartean lurren desjabetzeak egingo dituzte, gero autobidea egiteko. Lurren jabeak udaletxera etorriko dira Foru Aldundiko teknikarien aurrean sinatzera.

Zeresan asko ematen dabil Gasteiz-Eibar autobidea gure ibarrean. Kexak eta alegazioak aurkeztu arren badator, eta Arrasate eta Eskoriatza arteko tartearen proiektua onartuta dago.

UDALETXERA SINATZERA

Eskoriatza ipar eta Arrasate ipar arteko autobidearen tarteko proiektua onartuta daukate Foru Aldundian. Horrela, bada, lanak egiten hasi gura dute lehenbaiten, eta horretarako, lehenengo, lurren desjabetzea egin beharra daukate. Astelehenean, irailak 26, hasi eta egubakoitza bitartean egingo dituzte desjabetzeak Aretxabaletan. Lurren jabeek dagoeneko hitzordua daukate eta banan-banan hurreratu dira udaletxera paperak sinatzera. Foru Aldundiko teknikariak eta Arritxu Oliden alkatea —hark ezin badu alkateordearen bat— izango dituzte paperen aurrean.

50 lagunek baino gehiagok daukate hitzordua udaletxean, baina baliteke jaberaren bat ez aurkeztea sinatzera. Halakoetan tramitazioak aurrera jarraitzen du, eta lan handiagoa eman arren Aldundiari, lurren desjabetzea berdin-berdin egiten dute.

LURREN TRUKE DIRUA

Arrasate eta Eskoriatza arteko tartean lurak dituzten jabeek 56 alegazio aurkeztu zituzten bere garaian. Guztiei eman die erantzuna Foru Aldundiko teknikariak, eta halaxe azaltzen dira irailaren 6ko GAOn. Kezka asko azaltzen dira alegazio horietan, era guztietakoak, baita desjabetzearen gainekoak ere. Hala, aretxabaletar batzuek lurak trukatzeko eskatzen diote. Foru Aldun-



Apotzaga-Etxebarriko auzotarrek gertutik jarraituko diete autobidearen lanei.

diaren erantzuna ezezkoa da, lursailen balio ekonomikoa kalkulatu eta dirutan ordainduko diete jabeek; Aldundiko enanetan, horixe delako sistemarik objektiboena. Jabeak nekazaritza eta abeltzaintzarako lur gehiago eskuratzea susta dezake.

Gainerako alegazio asko zaraten gaineko kezka dira, lanek hondatutakoak berregiteko eskaerak ere badaude eta beste hainbat kexa. Aretxabaletako Udalak berak ere hamar iritzi kontuan hartzeko eskatu zion Aldundiari. Egungo egoeraren zaraten mapa egiteko, esaterako, eta lanak hasi baino lehen eraikin eta instalazioen egoeren notario-aktak egiteko. Azken hori egitekotan geratu dira; ez, ordea, lehenengoa.

Lursailen balio ekonomikoa kalkulatu eta dirutan ordainduko diete jabeek

TIRANTEDUN ZUBIA ETA TUNELAK

Arrasate eta Eskoriatza arteko autobide zatiak 6.545 metro ditu. Horietatik 1.247 metro tuneletan izango da, eta 889 zubietan. Arrasateetik datorrela Arbizelari parean gurutzatu egingo du herria autobideak 424 metro dituen zubi tirantedunaren bitartez, eta ondoren Deba ibaiaren eskuinaldetik jarraituko du. Isurietan eta Apotzaga-Etxebarrin tunelak egingo dituzte: lehenengoak 269 metro izango ditu eta bigarrenak 295.

LABUR

Contact dantza ikastaroa egingo dute urrian

Kontaktu puntu baten bidez sortzen den eta komunikazioa eta espresioa lantzen dituen dantza da Contact. Gozatu ekimenak antolatu du ikastaroa Udalaren laguntzarekin, eta eguaztenetan egingo dute, 20:00etatik 21:30era, Kurtzebarri eskolan. Izena emateko kultura etxera edo Azkena tabernara joan behar da urriaren 7a baino lehen, eta ikasleek eta langabeek 21 euro ordaindu beharko dute; langileek, 24. Hala, ikastaroa urriaren 12an hasiko dute.

Plastiko bilketa egingo dute martitzenean

Baserri inguruetan sortzen den plastikoa batuko dute martitzenean, irailak 27, arratsaldean. Siloa estaltzeko eta belar boletan baserriarrek erabiltzen duten plastiko beltza, negutegietan eta lurra estaltzeko erabiltzen duten plastiko beltza eta negutegiko plastiko zuria batuko dituzte.

Aretxabaletan hiru lekutan utz daitezke aipatutako plastikook: Lausitta kalean, Isurietako bidegurutzetik 100 metrora; Bainuetxe kalean, Arkarazoko bidegurutze parean; eta Oro auzora doan bidegurutzean. Urrian ez dute bilketarik egingo, eta hurrengo azaroaren 22an izango da.

L. GONZALEZ
PINTURAK
Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46



- Janari prestatuak eta enkarguz eginak (paella, menestra, bakailaoa, oilasko erreka, bildotsa, kanutilloak, etab.)
- Talde handientzako bazkari eta afariak

Ondo pasa San Migelak!

Tel.: 943 77 06 12

ETXEA
Etxerako guztia eta opariak
Dena prezio ezin hobean!
Ondo pasa San Migelak!

Aretxabaletan: Durana kalea 16
Arrasaten: Maalako Errabala 7

Gaur, 18:30ean, Zuhaitzen aldeko elkarretaratzea Udalak deituta

M.A.

Gaur, egubakoitza, 18:30ean, elkartuko dira herriko plazan Zuhaitz Errastiren alde. Udalak deitutako elkarretaratze isila da; izan ere, Euskal preso politikoen sakabanaketa eta bakartzearen aurka eta Zuhaitzen aldeko mozioa onartu zuten irailaren 12ko osoko bilkuran.

Giza eskubideak guztientzat! Euskal preso politikoen sakabanaketa eta bakartzearen aurka, Zuhaitz Euskal Herrira! lelope-

an elkarretaratze isila egingo dute gaur, 18:30ean, Udalak deituta. Bando bitartez esan die Udalak herritarrei gaur, egubakoitza, herriko plazara agertzeko.

ONARTUTAKO MOZIOA

Irailaren 12an aurkeztu zuen Aretxa plataformak Zuhaitz Errastiren aldeko mozioa osoko bilkuran. Lau eskaera egin zituzten Udalarik: senideei elkartasuna adieraztea; estatus politikoaren onarpenarekin isolamendua, dispersioa eta bakartzearen bukaera eskatzea;

Nantesko espetxeko zuzendari-tzarekin harremanetan jartzea Zuhaitzen berri izan eta egoera hori bukatzeko eskatzeko; eta Zuhaitzen egoera salatzeko herritarrei dei egitea elkarretaratzea egiteko. Mozioa onartu egin zuten, Aralarko eta Ezker Batuko aldeko botoekin; EAJ-koak abstenitu egin ziren eta PP eta PSE-EEko zinegotziek alde egin zuten aretotik, mozioa eztabaidatzeko orduan.

Elkarretaratzearekin mozio-ko laugarren puntua beteko dute.



Zazpi probetako bost Zelabaixorentzat

Desafio eguna izan genuen joan zen zapatua: K23 eta Zelabaixota koadrilak aurrez aurre. K23 kamiseta laruekin jantzita, Zelabaixota urdinekin, epaile lanak egiteko bi lagun, eta herriko plaza jendez gainezka. Zazpi proba egin zituzten: arto kaskara bilketa, txingak eroatea, tron-tzan, gizon proba, txapel jaurtiketa, sokatira eta zakuarekin arineketa. Zazpi horietatik bost Zelabaixotak irabazi zituen; hortaz, hura izan zen garaile. /M.A.

LABUR

Urrian egingo dizkiete azterketak udaltzain posturako aurkeztu diren hamalau lagunei

Udaltzain postua betetzeko deialdia kaleratu zuen uztailean Udalak, eta hamalau lagun aurkeztu ziren. Eguaztenean, irailak 21, elkartu zen epaimahaia azterketa egunak jartzeko: urriaren 14an azterketa teorikoa egingo dute, 21ean proba fisikoak Arrasateko kiroldegian eta 25ean test psikoteknikoak. Lehenengo azterketa gainditu beharko dute aurkeztutakoek bigarrena egin ahal izateko, eta bigarrena ere bai, hirugarrena egiteko. Epaimahaian, bestalde, honakoak egongo dira: Arritxu Oliden alkatea, Martin Garai udaltzainburua, Felis Beltran de Heredia zinegotzia, Xabier Mendizabal idazkaria eta Arkautetik etorriko den ordezkaria.

Gizadi enpresari eman dio Udalak etxez etxe laguntza zerbitzua kudeatzeko ardura

Gaixo, ezindu eta behar duen guztiari etxez etxe zerbitzua ematen dio Udalak enpresa baten bitartez. Azken lau urteotan Arrasateko Gizadi egin du, eta halaxe egingo du hemendik aurrera ere. Bost enpresa aurkeztu ziren deialdira eta Ongizate Sailean Gizadi ikusi zuten aproposena. Orain urtebeteko proba pasatu beharko du enpresa horrek, eta ezustekorik ez badago beste lau urterako luzatuko diote kontratua.

Etxez etxe zerbitzua aspalditik ematen du Udalak baina lehen zuzenean egiten zuen lan langile eta familiekin. 2000. urtean zerbitzua beste enpresa baten eskuetan uztea erabaki zuen, eta orduan hona Gizadi -lehen Atsedeen- dauka kudeaketaren ardura.

Urkulu inguruko lanak bukatzen dituztenean itxi egingo dute bidea, autorik ez pasatzeko

Orain dela hilabete batzuk hasi zen Foru Aldundia Urkulu ingururatu duen bidea konpontzen. Abuzturako asfaltatuta zeukaten, baina oraindik ez dituzte lanak bukatu: arekak txukuntzen dabilta eta aparkalekuak non egongo diren zehaztu behar dute. Hori guztia egindakoan itxi egingo dute urtegia inguratzen duen errepidea, baina oraindik ez dute erabaki zela. Hala, autoak aparkalekuekaraino bakarrik eroan ahal izango dituzte Urkulura doazen bisitariak; auzotarrek, ostera, ez dute arazorik izango euren baserrietaraino heltzeko.

Bestalde, Urkulu biziberrituko duen proiektua jarriko du abian Udalak laster. Naturgintza fundazioarekin dabil lanean, eta lau ildo dituen proiektua da: ur bazterrak txukundu, Urkulutik Arantzazura doan bidea garatu, bertako zuhaitzak landatu pinudien ordezkari eta paisaia zaintzeko baliabideak ezarri.

Matikua jatetxea

Azatza auzoa
ARETXABALETAKO
943 79 16 68

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETAKO
Tel. 943 79 29 26

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAKO
Tel: 943 79 01 28

Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- ✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 04 39

Olaben

- BILTEGI - HOZKAILUA
- OKELA - PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

San Migel zoriontsuak igaro!

Basabe poligonoa A -1 - 5 Aretxabaleta Tel./ Faxes: 943 79 34 28

ATREBENTZIAEZPADA/ Gripien kontrako txertue hartzen dozu? Gorputzendako ona dala uste dozu?



MARIA JESUSA MAKAZAGA
Jubilaue



GORKA ALARZIA
Langillie



POLONI GARZIAETXABE
Jubilaue



MARI JOSE PAVO
Langillie



PEDRO ROLDAN
Langillie



ANJELIKA AXPE
Jubilaue

Ez, ez dot hartzen, baiñe ez dot hartu izen ez griperik ezta katarrorik be, hortan... Oin, medikuek hartzeko esaten dauenien, pentsetan dot onak izengo diela osasunandako.

Ez, nik neuk ez, baiñe eda detuendako eta sarri geixoketan dienendako ondo ikusten dot. Gorputz danak ez die bardiñek, eta iguel batzuek ez dutzie igerriko, baiñe ona dala uste dot.


Ez, ez dot hartzen, geixotu be ez naz egitten eta. Hartu ezkeru iguel geixotu, eta ondo nabillen artien aurrea. Gizonak urtero hartzen dau eta harek be ez dau sekule hartu griperik.

Bai, osasunandako ona bada ondo pentsetan jat jartie. Ni sarri geixoketan naz, eta umie gehixau, hortan, geuk be hartzeko aukerie eukiz gero eta eraginkorra dala ikusitte, hartuko geuke.

Ez, nik ez, baiñe geixoketako arrisku haundixe daukienek hartzie ondo pentsetan jat. Bakteriak urte tik urtera aldatu egitten die eta immunizau, baiñe hori be normala da.

Bai, aste honetan fango naz. Lelengo aldiz hartuko dot, ona dala esaten daue eta. Ez naz askorik gaixoketan, katarron bat edo beste, baiñe badaezpada aurten hartu egingo dot.

TXALOAKETATXISTUAK




TXALOAK INTERNET LIBURUTEGIAN KZgunean ez ezik, orain liburutegian ere badaukagu Interneten nabigatzeko aukera. Ordenagailu berria jarri dute; eta ez hori bakarrik: eskanerra daukan koloretako inprimagailua ere bai. Txanda hartu behar da ordenagailuan ibiltzeko, eta ordu erdiko tartek ematen dituzte. Gainera, hainbat arau bete beharko dituzte erabiltzaileek. / M.A.

ORAINDELA3URTEARETXABALETAN

Lau enpresa lanean Bainuetxeko industrialdean

Laminados Aretxabaleta SA (LASA), Legaia, Fagor Sistemas (orain Mondragon Assembly) eta Industrias de Embuticion hasi ziren lanean Bainuetxeko industrialdean. 15 mila metro koadro zituen industrialdeak, eta LASA zen bertako lantegi handiena 9.237 metro koadroekin.



ASTEKODATUA

424

METRO IZANGO DITU ARBIZELAI GAINEKO ZUBIAK

Gure herritik pasatuko den autobide zatiaren proiektua onartuta dago. Arbizelai parean 424 metro izango dituen zubi tiranteduna egingo dute, Isurieta alde- ra egin dezan autobideak.

BESTEKEESANA

“Euskaraz nahi dugu hitz eta Jolas artikulua irakurri berri dut, eta Lapurdi, Behe Nafarroa eta

Zuberoari dagozkien datuak ez dira zuzenak. (...)

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan 47.732 ikasletatik 7.752k erabat euskaraz ikasten dutela argitaratu da. Hemen euskara hutsean ikasten duten bakarrik (hegoaldeko D ereduaren parekoak, murgiltze sistema deritzoguna) ikastoletako ikasleak dira.

Sare elebidunetan, nahiz publiko nahiz pribatuan, ez dute, ezta gutxiagorik ere, erabat euskaraz ikasten. Eta Seaskako matrikulatu kopurua hau da: Ama eskola eta lehen mailetan 1.500 inguru, eta bigarren mailetan 700 inguru. Beraz lekutan gelditzen da % 15,9 hori.

AITOR SARASUA
Erabili.com/05-09-15

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Herria da gorputza hizkuntza...

Aukera berri bat dugu astebete bat barru hala hizkuntza nola herria bultzatzeko. *Herria da gorputza, hizkuntza bihotza* Xalbadorren esanak pisu handia du horregatio. Batak bestea osatzen duela zalantzarik ez dut eta. Gurean tamalez, bata bestea baino herrenago ez ote dagoen ere...

Gutziz elbarri ez dadin suertatu ordea, ez da nahikoa euskal eskolari laguntzea; hori nahitaezkoa den heinean, egunerokotasunean euskara erabiltzea ez da gutxiagorako. Ikastetxean itoke ez bada, etxean, kalean, lantokian, tabernan... edonon ahoratzea komeni da. Ezinbestekoa. Zuzenago ala okerrago; euskalkian ala batuan hitz egiteari ez nioke garrantzi handiegirik emango. Burura datorrena bota. Aberastu, erabili az egiten da. Nahi duenak, noski. Inor behartu barik. Norberaren eskuetan dago zein hizkuntzatan hitz egin. Zer dela eta gaitzetsi beste

hizkuntzarik; ez horixe. Gustura asko mingaineratuko nituzke -dagokionarekin- ezagutzen ditudan hizkuntza guzti guztiak hitz egiten banekizki; horixe baietz. Kezkagarria eta, gogoko ez dudana euskara -eta beste edozein hizkuntza- erasoen jomuga izatea da. Inongo eskubiderik gabe bazterten dutela ikustea. Esan dezagun, hizkuntzak berez, sortu, aldatu, ugaritu eta galdu egiten direla; baina aparteko arrazoiengatik galdu araztea mingarria da. Urriaren 2a beraz,

egun seinalatua badugu ere, beste egun bat gehiago izan behar du; politagoa akaso, jendetsuagoa agian... baina biharamunik gabekoa. Dirua biltzea/ematea ez dadila helburu bakarra izan. Dirua ez delako ez herriaren ezta hizkuntzaren giltza ere. Lagun ona bakarrik.

Esateko asko eta lekua gutxi. Norberak pentsatzea onena. Askok gastatu ta gutxi kantsau. Hurrengora arte.

“Norberaren eskuetan dago zein hizkuntzatan hitz egin. Zer dela eta gaitzetsi beste hizkuntzarik; ez horixe”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 23a / 223. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otalora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: 55200/99

Dardarak eta pitzadurak eragin dituzte autobideko lanetan egindako leherketek

IKER BARANDIARAN

Abuztu bukaeran eta joan den asteko martitzen eta egubakoitzean dardara handiak igarri zituzten hainbat herritarrek. Are gehiago, autobideko lanen ondoan dagoen etxe baten pitzadurak sortu dira. Autobideko lanetan egindako leherketak dira horien iturri.

Zenbait herritar oso kezkatuta daude azken egunotan herrian izan diren dardarengatik. Hain zuzen ere, herriko plazan dauden eraikin batzuetan ere igarri zituzten. Herritarrek ez zekiten zein zen horren arrazoia, eta horietako batzuek udaletxera jo zuten euren kezka agertzera. Gerora, jakin dute autobideko lanetan leherketak egin dituztela, eta bibrazioak horiek eragin zituztela.

PITZADURAK BASERRI BATEN

Horrez gain, autobideak kaltetutako taldeak aditzera eman du Aranburuzabala kalearen gainaldean dagoen Antontxu baserriko hormetan pitzadurak sortu direla. Etxe hori autobideko lanetatik 150 bat metrora dago. Han bizi direnek esan digute lehenengo leherketa entzun zutenean izugarritzko sustoa hartu zutela,



Irudian Antontxu baserria, eta gainaldean kamioi bat autobideko lanetan.

eta informazio eske udaletxera jo zutela. Horrez gain, aditzera eman digute hori baino lehenago, oportetarik bueltan etorri zirenean, etxearen alde bateko hainbat gelatan pitzadurak eta zenbait gauza mugituta aurkitu zituztela.

Antontxu baserriko familiak, oso arduratuta, Bergarako epaitegira jo zuten denuntzia jartze-

Herriko plazako eraikin batzuetan ere igarri dituzte leherketen dardarak

ra. "Inork ez zigun leherketa horien berri eman, eta pitzadurak ikusi genituenean zur eta lur gelditu ginen".

Autobideko lanen zuzendaritzak ere arazoaren berri izan zuen eta lanen segurtasuneko arduradun bat bidali zuen pitzadurak aztertzerako. Pitzadurak ikusi eta gero, arduradunak eskaiolazko

lekuko batzuk jarri zituen kalteak seinatzeko.

Horrez gain, Antontxu baserrikoek beste ardurak batzuk dituzte. Nagusia da lanak baserriko oso metro gutxira egiten dituztela eta gainean harri-lubeta jarri gura dutela. "Gure gainean kamioi handiak dabilta lanean, eta edozein egunetan kamioiren bat edo harri handiren bat jausiko den beldur gara. Dagoeneko jausi dira harriak beste auzo baten". Bestela, ez daude konforme Bidegik ematen dituen azalpenekin. "Erabakiak hartzen dituzte, baina ez digute inolako aukerarik ezta azalpenik ematen", azaldu zuten.

NOTARIO-AKTA EGITEKO PREMIA

Autobideak kaltetutako taldeak aditzera eman du Bidegik lehenengo batzarrak egin zituztenean hainbat akordio egin zituztela. Horietako bat zen gehien kalte litezkeen eraikinen notario-aktak egitea. Kaltetutako taldeak 40 bat eraikin zenbatu zituen, baina Bidegik hiru besterik ez zituen kontuan hartu.

Orain, kaltetutako taldeak, izan diren dardarak eta pitzadurak aintzat hartuta, aditzera eman du "Bidegik arduragabekeriaz jokatu zuela eraikin horien notario-akta egin barik".

Erretiratuen egunean 40 bat lagun elkartu ziren Mendiolan

I.B.

Joan den domekan, giro paregabea izan zuten Mendiolan. Izan ere, urtero moduan, erretiratuen eguna ospatu zuten. Auzoan bizi direnek eta han jaiotakoek meza, bazkaria eta dantzaldia izan zituzten.

Berez erretiratuen eguna den arren, auzoko lagun gaztegoek ere gozaten dute egun hori. Hain zuzen ere, erretiratuek hainbat lagun eta senide izan zituzten alboan. Aurten 40 bat

lagun elkartu dira, eta eguerditik iluntzera arte ez zuten asperetzeko astirik izan.

Lehenik eta behin, meza entzun zuten San Juan Bataiatzailearen elizan, 13:00etan. Horren ostean, berbeta apur bat egin eta bazkaltzera joan ziren Olamendi elkartera. Postrekin batera, opariak banatu zituzten: gizezkoek, erloju bana; eta emakumezkoek, kandelak.

Eguna ondo bukatzeko, Laja eta Landakanda trikitilariak erretiratuak dantzan jarri zituzten iluntzera arte.



Argazkian atsedean hartzen harrapatu genituen, baina ia ez ziren egun osoan geldirik egon.

ELKARRIZKETA

JESUS FERNANDEZ DE ARROIABE 'MATXAIN' / PLATER TIRATZAILEA

"600 garaikur baino gehiago ditut ziklo-kros eta plater tiroketakoak"

IKER BARANDIARAN

Matxain sasoian dago. 71 urterekin, Espainiako Kopatik etorri berri da eta superbeteranoen kategorian lehenengo saria jaso du. Gaztetan, nazioarteko ziklo-kros txapelketetan esku hartu zuen.

Plater tiratzaile ezaguna zaren arren, gaztetan ziklo-krosean ibili zinen.

1954an egin nuen lehenengo lasterketa, Aretxabaletan, eta irabazi egin nuen. Hamabost egunera, Euskal Herriko Txapelketa egin zuten Altsasun, eta lehena heldu nintzen. 1955ean, Sabadellen, Espainiako Txapelketan, hirugarren gelditu nintzen. Amateur mailan nenbilen, eta Munduko Txapelketan esku hartzeko, profesional egin ninduten. Luxenburgon izan zen, eta 28.a gelditu nintzen. Haren errebantxa Baionan egin zuten, eta bigarren postua lortu nuen.

Eta txirrindularitza alde batera utzi zenuen?


Soldadutzara joan behar izan nuen. Handik bueltan, eratu berri zuten Kas txirrindularitza taldeak eskaintza egin zidan. Baietza eman gura nien, baina familian esan zidaten dirua behar genuela, eta txofer lanbidea hartzeko. Orduan gaur egun bezala pentsatuko banu, bizikletan ibiltzen jarraituko nuke. Behintzat, proba egingo nuke.

Matxain goitizena nondik dator?

Munduko Txapelketara joateko bizikletak oparitu zizkiguten, eta koadroan Errenteriako jatorrizko *Matxain*-en izena jartzzen zuen. Horregatik, eta tabernan ditudan garaikurrak ikusita hainbat lagun hasi zirelako esaten *Matxain*-en antza daukadala deitzen didate horrela.

Eta halako baten plater tiroketan hasi, eta berriz podiumetan...

Bai, hala da. Ehizatik plater



I.B.

"Ziklo-krosean hasi eta hamabost egunera, Euskal Herriko txapelketa irabazi nuen"

tiroketara pasa nintzen, eta urte oso onak izan ditut. 1981ean, Errusian egin zuten Europako Txapelketan zilarra lortu genuen hemengo taldekook. 1988an, Espainiako Kopatik irabazi nuen; eta 1989an, Munduko Txapelketan, Lisboan, hirugarren

"71 urterekin, plater tiroketa txapelketetara joaten naiz; 'junior' deitzen didate"

postua lortu nuen. Oraindik, 71 urterekin, jarraitzen dut txapelketetan esku hartzen, *junior* deitzen didaten arren. Joan den asteburuan, Espainiako Kopan egon nintzen, eta superbeteranoen kategorian lehena izan nintzen, eta sailkapen orokorrean, 17.a.

'Familian jolasean' ekimena jarri dute abian

I.B.

Udaleko Euskara Zerbitzuak Familian jolasean ekimena jarri du abian. Aurten bosgarren urtea da antolatzen dutena, eta familia osoei gonbidapena egin diete euskal jolasak batera ikas eta praktika ditzaten.

Gauza jakina da euskal jolas tradizionalak galtzen dabiltzala. Arrazoi horregatik, azken bost urteotan Udaleko Euskara Zerbitzuak *Familian jolasean* ekimena antolatu du.

Batetik, 5 eta 10 urte bitarteko ume eta gaztetxoei hainbat jolas mota erakutsiko dizkiete: zozketakoak, sokasaltoak, eskuakoak, gomakoak, animazioak eta mimika, lerrokakoak, korroan, itsuka, baloi jolasak...

Are gehiago, 0 eta 4 urte bitartekoendako moduko jolasak eta kantuak ere ikasi eta praktikatu ahal izango dira: txintxaunean ibiltzekoak, lo kantak, jatekoak, altzoan hartuta abestekoak, errezitatzeakoak...

UMEEN FAMILIAK INPLIKATU

Ume txikiaren kasuan, ikastaroa gurasoei, aisialdiko hezitzaileei, irakasleei eta aiton-amonei zuzenduta dago. Bi ikastaroetan izena emateko azkeneko eguna urriaren 7a da. Interesatuak kultura etxera jo beharko dute edo honako telefono zenbakira deitu: 943 71 46 88.

Ikastaroa Urtxintxa aisialdi eskolak emango du, eta familia bakoitzak ikastaroan esku hartzeagatik 10 euro ordaindu beharko ditu. Txikiaren kasuan, gurasoek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta bikoteek, 15 euro.

Domekan, 250 erretiratu batuko dira pilotalekuan

I.B.

Aurten, 33. aldiz, Erretiratuen Eguna egingo dute Eskoriatzan. Domekan izango da hori eta Udalak egitarau polita antolatu du herriko nagusienendako. 250 lagunek eman dute izena pilotalekura bazkaltzera joateko.

Eskoriatzako Udalak Erretiratuen Eguna antolatu du herrian azken 32 urteotan. Udaleko gizarte-laguntzailearen esanetan, "helburua da herriko nagusienak omentzea, eta egun polita igaro dezaten gailuak jartzea".

Antolatu duten egitarau zabalarekin ziur edadetuak gustura geldituko direla. Lehenik eta behin, meza izango dute eliza nagusian. 12:00etan izango da hori. Horrez gain, 11:30etik 13:30era bitartean, salda banatuko dute erretiratuen elkartean (herriko plazan bertan).

Behin meza entzunda eta indarberritzeko salda hartu ondoren, pilotalekura joko dute bazkaltzera. Dagoeneko izenematea itxita dago eta 250 bat lagun joango direla aditzera eman digute antolatzaileek. Ez digute azaldu zer menu izango duten, baina bada-kigu ez dela edonolako izango. Bazkarian zerbitzatzen udal langileak eta herriko boluntarioak ibiliko dira.

BI NAGUSIENEI AIPAMEN BEREZIA

Bazkaldu bezain pronto, bazkaltzen batzen direnen artean, gizonetako eta emakumetako nagusienek opari bana emango diete. Horren ostean, herriko hainbat negoziok eta enpresak emandako opariak guztien artean banatuko dituzte.

Jaieguna bukatzeko, dantzaldia egingo dute. Iñigo Madinabeitia musikariak izango du erretiratuak dantzan jartzeko ardura. Ez zaio askorik kostatuko.

LABUR

Areto futbol taldearen elastikoak aurkeztuko dituzte domekan Ibarraundin

Etzi, domeka, ekitaldi berezia egingo dute Ibarraundi museoan, 11:30ean. Hain zuzen ere, areto futbol taldeak denboraldi honetan erabiliko dituen elastiko eta bestelako jantziak aurkeztuko dituzte. Denboraldiko babesleak SW, Emag eta Ibarraundi Museoa izango dira.

Aurkezpenean, kirol elkarteko eta Udaleko agintariak esku hartuko dute. Talde horrek nazional B mailan jokatu du, eta erronka handia du aurrean. Urriaren 1ean, Laudion jokatu du Lo+9 taldearen kontra. Horren ostean, urriaren 8an GS Bilbo UPV taldea Eskoriatzara etorriko da. Ea aurten ere jarraitzaileek taldeari babes handia ematen dioten!

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko irailaren 23a / 164. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Domekan erreka garbitzera joateko dei egin dute

UBANE MADERA

Orixol Mendi Elkarrekin antolatu du ekimena. Bereziki, eskolako umei dei egin diete, baita gurasoei ere, eta jakina, parte hartu nahi duen edozeinek ateak zabalik izango ditu.

Orain erreka ur gutxi daramala eta pentsatu dute erreka garbiketa egiteko aprobetxatzea. 10:30ean egin dute hitzordua, domekan. Deia erantzuten dion jende kopuruaren arabera, taldeka banatuko dira erreka garbitzeko. Ahal izanez gero, hiru puntutan jardungo dute: Mortsa baserritik plazara; Salazan baserritik plazara eta Arbeletik plazara. Edozelan ere, jende gutxiegi elkartzen badira, Arbeletik plazara arteko erreka zatia garbituko dutela jakinarazi digu Orixol elkarrekin, horixe izaten da eta zikinen egoten dena.

KATIUSKAK ETA ESKULARRUAK

Antolatzaileek eskatu dute ahal izanez gero, erreka garbitzera



Bereziki, eskolako umeengana jo du Orixol Mendi Elkarrekin.

doazenez katiuskak eta harrikoa egiteko eskularruak eramateko. Basura poltsak, berriz, Orixol elkarrekin emango dizkie; baita hamarretakoa ere (ogitarteko-

ak). Bestalde, esan digute garbiketa kontuak diren arren, umeak, beste urte batzuetan behintzat, ederki asko ibili izan direla errekan gora eta behera.



1945ean jaiotakoek egindako txangoa

Aramaion 1945ean jaiotakoek afaria egiten hasi ziren ospakizun moduan, orain dela 20 urte. Baina aurtengoa, 60 urte betetzen dituztela eta, afaria egin beharrean, ospakizun bereziagoa egin dute: txangoa, autobusean, Gipuzkoan zehar. Hain justu ere, joan den zapatuan egin zuten txangoa, irailaren 17an: Zumaian hamarretakoa egin zuten, Hondarribin, berriz, bazkaldu egin zuten, eta bueltan, Zarautzen geratu ziren. 21:00ak aldera itzuli ziren Aramaiora. Kontatu digutenez, oso ondo pasa zuten eguna. Aramaion bizi direnez gain, dagoeneko Aramaiotik kanpo bizi direnek ere parte hartu zuten ekimenean. /ARGAZKIA: N. ASTONDOA

Erantzun ona izan du postal lehiaketak

U.M.

Oso pozik daude Txirritola Euskara Elkarrekin aurtenko postal lehiaketak izandako erantzunarekin. Izan ere, 20 lagunek parte hartu du. Irabazlea zozketa bidez aukeratu dutela jakinarazi digute: Itsaso Lopez de Bergara. Landetxe batean egonaldia irabazi du.

Potes, Machu Picchu, Kanariar Uharteak, Nafarroa... Leku askotako postalak jaso ditu Txirritola Euskara Elkarrekin lehiaketarako, gainera, batzuk oso modu bitxi eta politoan idatzita. Guztien

artean, Donibane Garazitik bidalitako batek irabazi du lehiaketa, zozketa bidez. Saria, berriz, lehen esandakoa: landetxe batean asteburuko egonaldia.

Orain, postal horietako batzuk kultura etxean ipini dituzte, jendeak ikus ditzan.

TXALAPARTA, ASTELEHENEAN

Bestalde, jakinarazi digute datorren astelehenean, hilak 26 hasiko dela Txirritola Euskara Elkarrekin antolatutako txalaparta ikastaroa. Edurne Urizarren eta Alex Mendikute aramaioarrak ibiliko dira irakasle lanak egiten. Ikastaroa 19:00etan hasiko da. Iturrosteko plazaetxean.



Kultura etxean daude ikusgai jasotako postalak batzuk.

Ardoa dastatzen ikasteko ikastaroa egingo dute

U.M.

Urriaren 7an, 14an eta 21ean izango dira eskolak. Ordu eta erdi edo bi ordu ingurukoak direla jakinarazi digute, 19:00etan hasi eta

20:30era arte. Kultura etxean egingo dute. Asko jota, 15 lagunendako lekua izango da, beraz, adi ibiltzea komeni da, izena lehenbailehen emateko. Udaletxean eman behar da izena eta bost euro ordaindu izena emateko orduan.

IKASTARO INTERESGARRIA

Arabako Dastaketa Elkarrekin elkarlanean antolatu du Zuzeneko Koadrilak ardoa dastatzen ikasteko ikastaroa, aramaioarrandako interesgarria izan daitekeelakoan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martín Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Schiltzalleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Iaztxoa duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbakia honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BASERRITARRENDAKO DEIA


Arabako Nekazaritza Sektorerako Laguntza Planak baserritarrendako dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Batetik, azpiegitura lanekin lotutako dirulaguntzak eskatu ahal dira, urriaren 1a baino lehen. Bestetik, ustiapenak hobetzeko dirulaguntzak eskatu ahal dira, azaroaren lehen arte. Eskabideak aurkezteko zein bestelako edozein zalantza argitzeko, Eskualdeko Nekazaritza Bulegora jo beharra dago.

YOGA: IKASTURTE BERRIA

Aurtengo ikasturterako izena emateko epea zabaldu dute. Interesa duenak honako telefonora deitu beharko du, 21:00etatik aurrera: 943 78 17 83.

ERRETIRATUENDAKO TXANGOAK

Irailaren 27an eta 28an txangoa antolatu dute erretiratuendako, Monasterio de Piedrara joateko. Pertsonako 95 euro ordaindu beharko da; prezio horren barruan sartuko dira autobusa, egonaldia, mantenu osoa eta monasteriorako sarrera.



Aramaioarrak pozik Amurrion

Hortxe duzue Fermin Etxebarria artzaina Amurrion, joan den domekako omenaldian. Denetarik oparitu ziotela kontatu digu: liburua, margolana, makila, txapela, lepoko zapia... Kontatu digu, baita ere, ondo asko lagunduta joan zela, 18 bat lagun joan zirenetan berarekin: "Barajuendik, Eguzkierripatik, Arexolatik, Arriolatik...". Horrez gainera, Amurrion aspaldiko lagunak ikusteko aukera ere izan zuen.

Esan digunez, goiz partean omenaldi ekitaldiak egin zizkieten; horren ostean, bazkaria izan zuten eta arratsaldean, berriz, ardiak ikusten ibiltzeko aukera izan zuten. Txakurren lehiaketa ere ikusi zuten, eta iluntze partean bueltatu ziren guztiak etxera, pozik: "Ondo ibili ginen, elegante". / ARGAZKIA: I. NAFARRATE

BOTEPRONTOAN/ Jose Antonio Apraiz · Medikua

"Ariketa fisikoa egiten dutenek askoz gutxiago gastatzen dute botiketan eta medikutan"

Alaiak elkarteak gonbidatuta, Jose Antonio Apraiz gasteiztarrek kirolaren gainean jardun zuen. Kirurgia ortopedikoan espezialista da; baita kirolaria ere: luzera-jauzian Arabako errekorra du 1955a ezkerre, eta jabalina jaurtitzan 1960a ezkerre. Oraindik inork ez du lortu haren markak gainditzea. 32 urtez Gasteizko Santiago ospitalean traumatologia sailaren arduraduna izan da eta 1965etik 66ra Oxfordeko Larrialdi Zerbitzuen buru:

Oxforden, e?

Bai, eta badakizu nork aurkeztu ninduen hara sartzeko? Manuel Irujok, Parisen izan zen Euskadiko gobernuaeren Justizia buruak. Oxforden zegoen erbestera katalan batek zabaldu zizkidan atea, Truetak. **Osasun kontuetan, zeintzuk dira nagusien arazorik handienak?** Zahartzaroak eragindakoak, batez ere odol-hodietan. Zaharitze hori oxidazioak eragiten du; odol-hodiak ugertu egiten dira, burdina edo bestelako metalak ugertzen diren bezala. Eta frogatuta dago ariketa fisikoa egiteak oxigenoa sortzen duela eta horrek saihestu egiten duela egitura horien ugertzea.

Hortaz, kirolak zahartzaroan laguntzeaz gainera, zahartzaroa prebenitzen laguntzen du? Bai, bai. Donostian izan den beteranoen Mundu Txapelketan ikusi da hori, adibidez. **Gauza da odol-hodien oxigena-**



zioa hobetzea kirolarekin?

Ehunen oxigenazioa. Oxigenoak zera egiten du: odola biriketara doa, han birikek ematen dioten oxigenoarekin aberastu egiten

da eta odolak ehunetara eramaten du oxigenoa. Esaterako, oxigenoz aberatsa den odola burmuinera eramanez gero, azkarragoa izango da pertsona (edo ez horren tontoa); edo burmuinaren bestelako gune batzuetara eramanez gero, esaterako gogo-aldartea dagoen gunera, ba orduan alaiagoa izango da, baikorragoa, depresio gutxiago izango ditu...

Abantaila fisikoez gainera, psikologikoak ere badira, beraz... Mota guztietakoak. Kirola eginez gero, besteekin harremanak izateko gogo handitu egiten da; zehazki, lotura zuzena dago ariketa fisikoaren eta harreman sexualen artean. Hau da, ariketa fisikoa egiten duten pertsona nagusiak askoz ere aktiboagoak dira sexualki. Nik beti esan dut Osasun sailburu izango banintz, gimnasioak Osakidetza bitartez doan izango lirakeela; edo bestela, deskontatu egin beharko lukete; izan ere, ariketa fisikoa egiten dutenek askoz ere gutxiago gastatzen dute botiketan eta

medikutan.

Zer esango zenieke ariketa fisikoa egin nahi ez duten pertsona nagusiei?

Gure inguruan oso erraza dela kirola egitea. Hiri edo herri handi samarretan, kirol azpiegiturak oso onak dira. Baina azpiegiturak baino garrantzitsuagoa dena da begirale oso onak ditugula, HAEERI esker (IVAP). 1.000 biztanletik gorako herri guztiek dituzte heziketa fisikoarekin lotutako egitasmoak, gimnasioak... Beldurra kendu egin behar da, txandala ipini eta izena eman orain, udazkenean zabaltzen dira-eta zerrendak. Eta gimnasia joateko lotsa duenak badu beste aukera bat: mendira joatea. Aire librean ibiltzea. Amerikarrek badute eslogan bat: astean bost ordu erdian ibili behar da, gutxienez. Hori nahikoa da. Aire librean ibiltzea garrantzitsua da, eguzkiak laguntzen du eta zenbait elementu hobeto asimilatzen. Esaterako, kaltzio gramo bat hartu behar da egunean (litro bat esne), baina kaltzio hori ez da aktibatzen eguzkia hartu arte. Bestalde, askok egiten dutena da bost egunean igeri egitera joan, eta hori ona da gorputzean bizkortasunari eusteko, baina hezurrendako ez; izan ere, flotatzen egonda, hezurrek ez dute kaltzioa atxikitzen. Ideala izango litzateke igerilekura oinez joatea.

"Egunero ordu erdiz ibiliz gero (martxan), minutuan bost pultsazio jaitea lortzen da"

"Minutuan bost pultsazio jaitea lortuz gero, urtean bi milioi taupada gutxiago dira"

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 23a / 20. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otorala Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

Iñaki Eguren: "Ez nuke gura lanak hiru edo lau hilabete baino gehiago irautea"

XABIER URTZELAI

Astelehenean hasi zen AIKIA eraikuntza enpresa urarendako, gasarendako eta saneamendurako hodiak sartzeko lanak egiten. Bertako teknikari Iñaki Egurekin izan gara lanen gainean berbetan.

Herriaren goialdean dagoen ur biltegiari hasi dituzte lanok: "Aste barruan herriraino joango den kanala egin dugu, eta kanal horretan sartuko ditugu uraren eta gasaren hodiak. Gasaren hodia sartzeko, gainera, distantzia batzuk errespetatu behar dira, eta horregatik egin dugu metro bateko zabalerako eta metro eta hamar zentimetroko sakonerako kanala". Dagoeneko ur mozketak bat egin dute: "Uraren hodiaren behin-behineko desbideratzea egiteko izan zen mozketak hura, baina datozen hilabeteotan ur mozketak bat baino gehiago izango da. Ura moztu aurretik herritarrek ohartarazi egingo ditugu; baina gerta daiteke matxuraren bategatik ura moztea. Orduan, arazoa lehenbailehen konpontzen ahalginduko gara".



Argazkian ikusten da non elkartuko diren uraren eta gasaren hodiak.

ZAILTASUN HANDIKO LANAK

Iñakiren esanetan, biltegitik herriraino dagoen zelaia zultzeko ez dute arazorik izan. Baina lanek aurrera egin duten neu-

rrian zailtasunak baino ez dituzte aurkitu: "Kanala errepediraino iristen denean gogotik egin beharko dugu lan. Hasteko, malda moduko bat dago errepediaren

gainean, eta gero, errepedi mozketak egin beharko ditugu, bertan suteetako ur-hargunea jarriko dugu-eta". Baina hor ez dira buruhausteak amaituko:

"Herrian sartzea izango da txarrrena. Beste lan batzuen artean, lehenengo hodi zaharrak berriengatik aldatu beharko ditugu, eta batek daki hodi horiek zein egoeratan egongo diren. Gainera, herri berezia da, oso leku gutxi dago lanok egiteko, eta horrek zaildu egingo du dena".

LANAK ETXEEN ATZEALDETIK

Iñaki Egurenen esanetan, lanok egiteko ez dituzte herriko kale nagusiak apurtuko: "Etxeen karkabak aprobetxatuta egingo ditugu lanok. Alde horretatik, ahalik eta traba txikiena egingo dugu". Eta, herritarrek jakin gura duten beste galdera bat ere bota diogu Iñakiri, noizko amaituko dituzte lanak?: "Lanak amaitzen ditugunean bukatuko dugu obra. (Barre) Horrekin esan gura dut ezin dudala egun zehatza jarri, baldintza asko daudelako. Eguraldi txarra egiten badu, lurtean zangak egin behar ditugunez, asko atzeratuko dira lanak; baina, beste arazo asko ere egon daitezke. Nik ez nuke gurako lanak hiru edo lau hilabete baino gehiago irauteagure partetik, behintzat, atsedean barik egingo dugu lan".



Bakailao ederra erretiratuendako

Jatun galantak dira Gatzagako erretiratuak, joan den zapatuan bakailao pusketa bakarra ere ez zuten-eta utzi Toki Eder Elkartearen egin zuten bazkarian. Esan digutenez, Gatzagako jatetxearen meritua ere bada, ederra ei zegoen-eta eurek prestatutako arraina. Azken baten, erretiratuak egunen moduko ospakizunak genero ederrarekin egin behar dira. 30 lagun elkartu ziren elkartean, trikitilariarekin gozatu, ondo bazkaldu, eta 18:00ak arte ibili ziren berbetan; batzuk dantza egitera ere animatu ziren. /X.U.

Gatzagarrek salatu dute "jokoz kanpo" daudela

X.U.

Europar Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela-eta, ibarrean makina bat ekimen egin dituzte oraingo astean. Gatzagako Guraso Elkarteak, baina, salatu du gatzagarrek, beste behin, "jokoz kanpo" geratu direla.

"Mankomunitate barruan dauden udalak kezkatuta daude garraio-bideek eragiten dituzten kalteekin, eta arazo hori era egokian bideratzeko, norberaren automobila etxean utzi eta herritarrek garraio-bide publikoak erabiltzea dute helburu. Horretarako hainbat ekimen egin dituzte: gidariendako

ikastaroak erregai ahalik eta gutxien gastatzeko, autobuseko doaneko bonuak emanez, Autotrik Gabeko Eguna ezarrita...

Leintz bailarako partaide garen gatzagarrok neurri horiekiko adostasuna adierazi gura dugu, baina geure sentimendu, bizipen eta egoera bestelakoa da. Kultura, kirol, osasun... zerbitzuetan egoera nahiko urria daukagu, baina garraio ezaren egoerak kezka eta haserrea eragiten digu. Gatzagako 2000 bizilagun (gazteak, erretiratuak...) garraio-bide barik bizi gara, eta ezin dugu ulertu, XXI. mendean gauza askotan eredu den ibarrak herri bat horrelako egoeran edukitzea. Arduradun guztiei: Noiz arte jokoz kanpo?"

HIZKUNTZAK DENONTZAT

● haur, gazte, helduentzat

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak
(ingeleza, euskara, hizkuntza, matematika...)

- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Multimedia sistema
- Mediateka dohan
- Bezeroei zerbitzua emateko estraneta
- Ikaslearen banan-banako jarraipena
- Ordenagailu gela eta internet
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan

Matrikula epea zabalik



Arrasate - Gipuzkoa
Avda. de Álava, 4 • Tel.: 943 71 20 55
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com

bai & by

frantsesa

txinera

alemana

ingeleza

italiera

Ospatu Maritxu Kajoi eguna geurean!

Baster-alde jatetxea

- Zure ezkontza eguna ospatzeko leku eta giro paregabea daukagu.
- 160 lagunentzako jangela eta aparkalekua.
- Terraza berria ahur parkearekin.
- Enpresa bazkariak jangela pribatuarekin.
- Bataioak, jaunartzeak, urtebetetzeak eta lagun arteko bazkariak.

Karta eta menua
ditugu aukeran.

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel./Faxa: 943 79 24 58





Mondra.net
arrasateko futbol taldea



OMU
CERAMICAS Y BAÑOS

ALMACEN Y OFICINAS:
Mondragón 2
Tel.: 943 79 14 28
ARRASATE

EXPOSICION:
Ignacio Zuboga 4
Tel./Fax: 943 79 07 20
ARRASATE

Biziberritu dezagun MONDRA!
egin zaitez bazkide!



Egin zaitez bazkide:

www.mondra.net

943 79 81 51

...edo ohiko lekuetan

2005-2006 denboraldirako tarifa bakarra
aurreikusten da eserleku guztietarako.



► Sofaleku
► Koltxoileku
► Centro Hogar Muebles

Zigarrola, 1
Tel.: 943 77 14 92
20500 ARRASATE




mazda
M MENDIOLA
San Andres, 10 D / Tel.: 943 77 21 00
ARRASATE


adox
diseinua
diploka-kartel-publikitatea-maketazioa-web orriak...
www.adoxnet.com
943 79 42 55


anpanzar
obate
— harrobiak —


MONDRABERRI .COM


MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
CORREDOR DE SEGUROS
GARCIA & MARTIN
ABOGADOS
C & E Estradas konsultoria S.L.
Erdiko kale 30 behe. ARRASATE / 943 77 13 09


M MENDIOLA
San Andres, 10 D / Tel.: 943 77 21 00
ARRASATE

www.mondra.net

Mondragón C.F. | Atxabalpe. Garagartza, 20500 Arrasate | 123 p.k. | Tel.: 943 79 81 51 | info@mondra.net